


...eta  
**K**ittoa!

2020-11-28

1132 zkia.

# Eibarko industriaren oinarri



**URRATEGI**  
INTERIORISMO  
barne diseinua

[www.urrategiinteriorismo.com](http://www.urrategiinteriorismo.com)

**dica** ® [www.dica.es](http://www.dica.es)

Arretxe 9  
20730  
Azpeitia  
943857244

Arragueta 27  
20600  
Eibar  
943857244





# gremioen gida



943-206776



## ANTENAK

**BALATZ**  
Instalakuntzak eta konponketak  
antena

Bidebarrieta, 37  
balatz@euskalnet.net

Tfnoa. 943 20 05 08  
Faxa. 943 20 04 94

## ELEKTRIZITATEA

**egoluz**  
ELEKTRIZITATEA S.L.

Ego Gain, 9 ac  
ego.luz@hotmail.com

677 51 24 62  
630 95 73 45  
943 20 06 97

## IGELTSEROAK

Eraikuntza  
Erreformak  
Igeltseritza

**irazabal**  
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...  
aldatzen laguntzen dizugu  
etorkizun hobeaz  
goza dezazun

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia  
Tfnoa. 943-120108  
[www.irazabal.net](http://www.irazabal.net)

Ego Gain, 2 - Bac  
Tfnoa. 943 12 73 50  
[www.trinmer.com](http://www.trinmer.com)

**trinmer**

TELEKOMUNIKAZIOAN  
PROFESIONALAK

**THELECEER**  
TELEKOMUNIKAZIOAK  
ELEKTRIZITATEA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

24 orduko  
urgentziak

610 532 922

## ARKITEKTOAK

olatx etxeberría martínez ARKITEKTOA  
olatx@arquitectura-ei.com Tel. 649978832

**estudio etxeberría**

arkitektura, hirigintza eta peritazioak  
eraikin eta obretako kudeaketa teknikoak

Mekola, 7 - behea  
Tel/Fax 943 70 21 12 [www.arquitectura-ei.com](http://www.arquitectura-ei.com)

## ERAIKINEN MANTENUA

**I.T.E.** INSPECCION  
TECNICA DE  
EDIFICIOS

**E.I.T.**

ERAIKINEN  
IKURKAPEN  
TEKNIKOA

info@ajtoficina.com tlf. 943 20 12 50  
**AJT zihurtasuna S.L.P.**  
Barrena, 6 - behea ezk.

## KRISTALAK

**ACHA Kristaldegia**

TAILERRA: ERREKATXU, 3<sup>an</sup>

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@cristaleriaacha.com **ERAKUSKETA**  
eta faxa: 943 203 903 Arikitzaneko Zubian

## AROTZAK

**ulmar**  
S.L.

metalezko  
eraikuntzak

aluminiozko eta PVC-ko aroztegia  
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea  
Tfnoak: 943 12 13 67 [www.ulmar.net](http://www.ulmar.net)

**ERAKUSKETA**  
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

## ERREFORMAK

**ESTUDIOS  
ARRILLAGA**

PROIEKTUAK - ERREFORMAK  
GREMIOEN KOORDINAZIOA  
ROSARIO, 15 -ELGOIBAR-  
605 713 168 943 744 019

## PINTURAK

**baglietto**  
PINTOREAK

Zoru mota guztiak  
Pinturak  
Dekorazioa

Errebal, 21 [www.bagliettoeibar.com](http://www.bagliettoeibar.com)  
Tel: 943 201 922 [bagliettoeibar@kaixo.com](mailto:bagliettoeibar@kaixo.com)

## GARBIKETAK

**Limpieza  
Multiservicio  
Eibar**

Superficie  
mota guztietako  
garbiketa eta  
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 031 082  
Mobila 688 609 171  
[www.multiservicioeibar.com](http://www.multiservicioeibar.com) Arragueta, 18-2.D

[www.kolorlan.com](http://www.kolorlan.com) 667 54 89 16

**KOLORLAN**  
PINTURA LANAK S.L.



Euskara Elkarte

**ARGITARATZAILEA:**  
...eta kitto! Euskara Elkarte.

**HELBIDEA:**  
Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18  
603 598 285.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**  
erredakzio@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:**  
elkarte@etakitto.eus  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**  
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,  
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi  
eta Silbia Hernandez

**ADMINISTRAZIOA:**  
Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**  
Ana Aizpurua

**ERREDAKZIO-BURUA:**  
Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**  
J.L. Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**  
Malen Jainaga  
eta Malen Illarramendi

**HIZKUNTZA ARDURA:**  
Juan Andres Argoitia  
eta Maider Aranberri

**PUBLIZITATEA:**  
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

**TELEFONOA:** 943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA:**  
Ekhi Belar

**BANAKETA-ARDURA:**  
Idoia Labado

**TIRADA:** 8.150 ale

**INPRIMATEGIA:**  
GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.  
**ISSN:** 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\* k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak  
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza  
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EIBARKO  
UDALA**



**GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)**

# eskutitzak

## – OHARRA –

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu irain-

garririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

Erredakzioa

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**MOTX / MOTZ.-** Oso argia ez dena. *"Motz samarra izan dok beti, eta danak adarra jotzen jetsek gizajuari".*

Mantxua, beso bakarra. *"Motxanekuak, elgetarrak ziran".*

Txikia. *"Hori pelotarixa, motza, baiña gogorra".*

Kamutsa, zorrotza ez dena. *"Irataixa oso motza daukagu".*

## astean esanak

"Herriz herri bertso eskolak ematen hasi nintzen eta adin guztietako jendea hasi zen gerturatzen, gaztetxoak eta helduak nagusiki. Baina bertso eskolak irekiak zirenez, gogoratzen naiz Eibarren antolatutako genuen bertso eskolara, udalbatza aretora, 80 lagun agertu zirela, bi dozena haur tartean eta baita 70 urtekoak ere. Ez zen erraza izan hura antolatzea, baina lagunartean eta giro onean topatzen genuen irtenbidea. Normalean haurrak ez ziren agertzen, gaztetxoak bai, 14-15 urtetik gorakoak"

(GOTZON AURREKOETXEA, HIZKUNTZALARIA)

"Estatuen ereserki asko gerrakoak eta etsaiaren aurkakoak izaten dira. Frantziakoa adibide argia da, eta lotsagarria iruditzen zait; herritarrak armetara bultzatzen ditu, eta harrotasunez kantatzen dute. Ezin dut ulertu nola herritar identifikatu daitekeen horrekin. Euskal Herriari dagokionez, Jose Maria Iparragirrereren *Gernikako arbola* unibertsalagoa iruditzen zait eta ereserki izan daiteke. Baina, ikusita gure herrian kanta nola txertatu den eta zein kantagarria den, eta hitzen aldetik duen sinbolismo guztiarekin, guztiontzat *Txoria txori* defendatuko nuke. Muga guztien gainetik dago eta zentzu polita du"

(JOAN MARI TORREALDAI, EUSKALTZAINA)

"Meditazioa iratzargailua da, ez lokartzailea; meditatzea gauzen inguruan hausnartzea da. Eta horrek ez du esan nahi besteengandik isolatu beharra dagoenik; meditazioari esker gero askoz ere irekiago egongo gara, gerturatzeo ahalmen handiagoga dugula. Pertsona hobeak eta zoriontsuagoak izan nahi izatea gaur egungo mito bat besterik ez da; meditazioa horren aurka doa guztiz: ez da itxaropen handirik piztu behar. Ikusi behar duguna da ea zer dagoean, aldatzeko beharrik sortu gabe, baizik eta dagoenarekin moldatzen. Isiltasunean 20 minutu egotea zaila da, baina oso mesedegarria"

(FERNANDO R. BORNAETXEA, PSIKOLOGOA)

## Ipuruako merkatu plazia biziberritzeko bigarren billera irekixa eguaztenian

Ipuruako merkatu plazia auzokuendako alkargune bihurtzeko parte-hartze prozesua hasitta dago eta, lehelengo saiua eta gero, bigarren billera irekixa datorren astian, eguaztenian egingo dabe, 18.00etatik 20:00etara, plazan bertan. 51 lagunek hartu eben parte auzokuak deittuta egin zan lehelengo saiuan eta bertan prozesuaren inguruko azalpenak emon zittuen. Horrekin batera, eraikiñaren erabillerarako ideiak bota zittuan jendiak eta ideia horrek espazioan antolatzeko lehen ahalegiña egin zan. Billerara juandakuen artian proiektuaren inguruko hausnarketak partekatzeke tartia be egon zan. Arduradunak azaldutakuaren arabera, eguaztenian egingo dan billeran proiektuari lotutako aukeren bideragarritasuna aztertu eta erabagiko dittue, antolaketari eta kudeaketari buruz hausnartuko dabe eta kudeaketari buruzko lehen zirriborrua be egingo da. Parte hartzeko prozesua danez,



saiuak nahi daben guztiendako zabalik egitten dira eta danera hiru billera egittia pentsatzen dabe (hirugarren saiorako eguna zehazteke dago), baiña gehixagorako premiña daguala ikusiz gero, laugarren billera bat egitteko prest daguzela emon dabe aditzera.

## Pensiño duiñen aldeko manifestaziñua egin zan astelehenian

Asteroko martxari jarraituta, Eibarko Pentsiodunen Plataformak deittuta alkarataratzia egin zan astelehen eguardixan Untzagan. Pensiño duin eta publikuen aldeko aldarrikapenen gaiñian berbetan hasi baiño lehen, Zaldibarko zabortegixan desager-



tuta segitzen daben Joaquin Beltran eta Alberto Solozue gogora ekarri zittuen eta bixen famelixeri euren alkartasuna azaldu zetsen. Beste herri askotan bezala, Eibarren be oin dala bi urte baiño gehixago ekin zetsen pensiñuen aldeko burrukari eta asteroko konzentraziñuetan 200 bat lagun alkartzen dira batezbeste. Aste honetako ekitaldixan Madrillera egin zan pentsiodunen martxan parte hartzen egon ziranetako batzuk hartu eben parte eta, bestiak beste, pensionista guztiak "alkartuta eta batera" burrukatzen segitzeko deixa egin eben. Konzentraziñua amaittu eta jarraixan, manifestaziñua egin zan.



**San Andres  
Gozotegia**

● **tartak**  
● **enkarguak**  
**etxera**

**Bidebarrieta, 28**  
☎ 943 20 79 73



**PUBLI RESA**  
objeto publicitario

publiresa@publiresa.com

**Armagin, 3-5 beheak**

🛍️ **merchandising**

🖨️ **serigrafia**

📦 **lanerako erropa**

943 701 497 / 687 879 667





## Aurtengo Udal presupuestua onartzeko plenua egingo dabe astelehenian

2020rako aurrekontuak onartzeko plenua astelehen goizian, 09:00etatik aurrera egingo dabe, udaletxeko Udalbatza aretuan. Egunerako gai ordenian bi puntu dagoz bakarrik: lehelengo puntuan 2020. ekitaldirako Aurrekontu Orokorra eta Eranskinak onartzeko proposamena jasota dagoz eta biga-

rrenian, barriz, 2020ko soldaten %2ko igoeria onartzeko emongo dabe botua. Betiko moduan, plenora sartzia libria izango da interesa daken herritar guztiendako eta internet bittartez zuzenian jarraitzeko aukeria be egongo da, eibar.eus web orrian horretarako da-  
 guan atalian sartuta.

## autuan



### ANDRA EKINTZAILERI BURUZKO SAIUA

Ekingune alkarteketak emakume ekintzaillien jabetziaren inguruan berba egitteko "Emakumeek... zer ezin dugula egin?" solasaldixa antolatu dabe martxuaren 17rako, Eibarko Armagintzaren Museuan. Lorea Arakistain kazetarixak gidatuko daben mahainguruan Amaïur Mayo, Esther Velasco, Natividad Garcia eta Marta Prolak hartuko dabe parte. Eztabaïda irekixaren ondoren, musika emanaldi labur bat eta networkinga egitteko tartia be egongo da. Ekitaldixa "emakumien ekintzailetza bultzatu nahi daben guztiendako" antolatu dabe.



Funeraria-Ehortzetxe  
**Mugica**

<p><b>EIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia</b>  <b>Funeuskadi Eibar:</b>                  Otaola, 27</p>	<p><b>ELGOIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia:</b>  <b>SIGMA Industrialdea</b>                  (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p><b>Bulegoa Eibarko erdialdean</b></p>  <p><b>Bulegoa Bidebarrieta, 20</b></p>	
<p><b>24 orduko zerbitzu iraunkorra</b></p> <p><b>943 20 19 51</b> <a href="http://www.funeuskadi.com">www.funeuskadi.com</a></p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	

Bidebarrieta, 5 Tel. 943 201 547

# CAPI

[www.capiestetica.es](http://www.capiestetica.es)

**BEGI** ingurune tratamendua



**BETILE LUZAPENAK**



**LIFTING**

**ZIONIC** reflective RF



- 1 LIPOLITIKO ANTIZELULITIKO**
- 2 BIRMOLDAKETA BIZIGARRIA**
- 3 EUSGARRIA**

**ESKLUSIBITEA PRIMIZIAN**  
 TEKNOLOGIA BERRITZAILERA

MARP + RF MASAJE ACTIVO ROTACIONAL PROFUNDO

## Udalaren app barrixa aurkeztu dabe

Aurreko barixakuan aurkeztu eben Eibarko Udalak mugikorrendako sortu daben aplikaziño barrixa. Azaldutakuaeren arabera, CodeSyntax enpresakuak garatu daben aplikaziñua "komunikaziñua errazteko eta herritarrekiko hartuemonak hobetzeko" asmuarekin sortu dabe eta Android zein Apple sistemetarako eskuragarri dago, Play Store-n eta App Store-n, Eibarko Udala izenarekin. Aplikaziño barrixa euskeraz zein gazteleraz konfiguratu leike eta, bestiak beste, herritarrak Udalari kejak, proposamenak edo abisuak zuzenian bidaltzeko balixo dau. Horrekin batera, norberak bere gustuaren arabera moldatu ahal dittuan filtruerei esker, erabiltzailliak bakarrik berari interesatzen jakozen kontueri buruzko informaziñua jasotzeko aukeria daka, aplikaziñuak berehalako alerta-sistemía daka eta.

Aittatutako horrekin batera, menu nagusiñak beste atal batzuk be badakaz (albistiak, agenda...). Esandakuaeren arabera, "aplika-



Ana Telleria ziñegotzixa eta CodeSyntax enpresakuak aurkezpenian.

ziñua Udal webguniaren beste kanal bat izatia nahi dogu, hau da, asmua ez da edukixak duplikatzia. Herritarreri kejak eta bestelakuak mugikorretik egitteko eta interesatzen jakuezen gaixen inguruko informaziñua errez jasotzeko aukeria emon nahi detsagu".



## Aldi supermerkatu barrixa Otaola etorbidian

Eguaztenian zabalduko dittu atiak Eibarren ALDI supermerkatu-katiak lehelengoz, Otaola etorbidian dendia inaugurauta. Supermerkatu barrixari esker, "bezeruengandik gertuago egongo gara eta denda moderno, eroso eta errez baten bidez, erosketa-esperientzia optimizauta eskintzeko moduan izango gara". Eguaztetenetik aurrera zabalik egongo dan supermerkatuak 15 bihargin eukiko dittu, "eta horretatik 12 lanpostu barrixak izango dira". Ugazabak pozik dagoz Eibarren dendia zabaltziarekin, Euskadin gero eta gehixago hedatzen doiazela, Eibarkua supermerkatu taldiak zabalduko daben 12.a izango da eta. Dendak 1.200 metro karratuko azaleria eta 75 aparkaleku izango dittu. Astelehenetik zapatara bittartian zabalduko dabe, 09:30xetatik 21:30xetara.

## Mendirako elikadurari buruzko saiua Deporren

Klub Deportibokuak Mendi Jardunaldixak antolatu dittu aurten be eta programia datorren abiatuko da: martxuaren 4an "Mendirako elikadura, proposamenak makrobiotikatik" izenburuko saiua eskinduko dau Aniaiz Ariznabarretak, 19:00etan Klub Deportibuan. Taillarrian mendira juaten garian zelako janarixa eruatzen dogun errepausauko dabe, eta horrendako makrobiotika ikuspuntutik alternatiba batzuk proposatuko dittue. Parte hartzen daben guztien artian errezetak banatuko dittue eta, gaiñera, degustaziño txiki bat egingo dabe bertan.

Bestalde, martxuaren 7rako bigarren eskuko materixalen azokia antolatu dabe: "Aspaldixan erabilli ez dittuzun mendiko arropak eta materixala oin saltzeko aukeria dakazu. Azokia konsumo jasangarrixa eraikitzen laguntzeko asmuarekin sortu dogu. Egun horretan saldu nahi dittuzun gauzak eruan eta prezioa ipiñi, besterik ez da egin bihar".



## IÑAKI ARANBERRI AIZPURUA

I. URTEURRENA: 2019-II-25

Urtebete gure ondotik joan zinela  
 Gure barnean tristura handia utzi diguzu  
**BETI GUREKIN IZANGO ZARA**

**ZURE ARREBAK ETA FAMILIA**





## 40 arbola landatuko dira domekan, Zuhaitz Eguna ospatzeko

Udaleko Ingurumen sailak, Klub Deportiboko Mendi Taldiarekin alkarlanian, Zuhaitz Egunaren ediziño barrixa antolatu dau domekarako. Parte hartu nahi daben guztiak izango dau horretarako aukeria, bardin detsa umia edo heldua dan. Antolatzailliak esan dabenez, “*eguna fameli-xarekin pasatzeko plan aproposa*” prepa-  
rau dabelako. Beste batzuetan bezala, oinguan be arbolak landatuko dittue: bertoko 40 zuhaitz (5 lizar, 15 gorosti, 10 haritz eta 10 pago) landatuko dittue guztira, Iturburu ikastola parian. Landaketia 10:30xak aldera hasiko dabe, baiña Ez-tiaga ingururaino oiñez igo nahi dabenak ordubete lehenago, 09:30xetan alkartu-ko dira Depor parian, danak alkarrekin juateko. Arbolak landatu eta gero, ba-suetan daguazen animalixen gaiñeko tai-



llarra egingo dabe. Arduradunen berbe-tan, “*jarduera horrekin biodibersidadiak ekosistemaren funtzionamenduan dakan garrantzixa azpimarratu nahi dogu eta, horrekin batera, gure basuendako orga-nismo onuragarrixenak zeintzuk diran azaltzen ahaleginduko gara. Taillarrian*

*parte hartzen dabenak animalixendako babeslekuak egingo dittue, holan biodi-bersidade haundixa dakan baso gaztia sortzen laguntzeko*”. Azken urtiotako martxan, 13:00ak aldera amaittuko dabe jardueria, hori bai, etxera juan aurretik ha-maiketakua hartuta.

## Andrazkuendako ikastaro eta taillarrak iragarri dittue

Entreamigos-Lagun Artean alkartiak hainbat taillar eta ikastaro antolatu dit-tu, Eibarko Jabetze Eskolakuak gurian udaberrirako prepa-  
rau daben eskintzaren barruan. Lehelengo taillarra, “Emakume-ak etengabeko Mugimenduko Munduan: Emakumeak Migratzen” izenekua mar-txuaren 14an eta 28xan izango da eta Sil-  
via Carrizo Fernandezek emongo dau.

Bertan landuko dittuen gaixak honetxek dira, bestiak beste: migratutako gorputza-ren gaiñeko kontrola, xenofobiak markau-tako egiturazko indarkerixia, amatasun mi-gratuak eta emakumien arteko aliantzak eta sareak.

Apirillian (25ian), barriz, Cristina Chiquin Rodriguez, Guatemalako argazki-kazetari-xak “Emakumeenganako Indarkeria Ge-

rrarako Arma bezala” ikastarua emongo dau eta, parte hartzen dabenak, Guatema-lako andren errealidadia eta gatazka arma-tuan jokatu eben papela lehen eskutik eza-gutzeko aukeria eukiko dabe. Eta maiatza-ren 7xan hip-hop taillarra emongo dau Re-beca Lanek. Antolatzaillien berbetan, “*emakume bakotxak dakarren gorputz-es-perientziatik abiatuta musikia konposatu-ko dogu. Sistema patriarkalian androk ja-san bihar dittugun zapalkuntzak apurtzeko eta aske egingo gaittuen alternatibak erai-  
kitzeko lan egin nahi dogu*”.

Izena emoteko zuzenian jo leike Andre-txeara (Zezenbide, 3) edo, nahixago izanez gero, internet bidez egitteko aukeria be badaka. Eta informaziño gehixago nahi da-benak Udalaren web orrixan, Berdintasuna-Andretxeari eskindutako atalian begi-ratu leike.



## JUAN ANTONIO HERNANDEZ MANZANO

– Otsailaren 20an hil zen, 85 urterekin –

**“ZURE irribarre eta samurtasuna  
betirako izango dira GURE ARTEAN”**

ETXEKOAK







## Aspaldiko Aratosterik tristeenei agur

Zaldibarko zabortegian gertatutakoaren eraginez aurtengo Aratosteak bereziak izan dira, zalantza barik. Batetik, herritarren artean beste batzuetan baino jai gogo gutxiago egon dela begibistakoa da. Eta, bestetik, jaia ospatzeko antolatuta zegoen egitaraua azken orduan murriztuta geratu da, hainbat jarduera bertan behera laga dituztelako: Eguen Zuri egunean ikastetxeek egin ohi duten kalejirarik ez zen egin eta, Aratosteak ospatu zituzten haurrek, berriz, ikastetxe barruan egin zituzten jaialdiak. Barixaku Erregularrean, berriz, kaldereroen kalejiran oso jende gutxik hartu zuen parte, talde gehienek ez irtetzea erabaki zuten eta pregoirik ere ez zen egin. Gauean Deus Ez eta Kokein taldeek eman beharreko kontzertuak ere aurrerago egitekotan geratu dira. Eguraldia lagun, zapatu eguerdian hasi zen Aratoste giroa ikusten: beste batzuetan koadrilek egiten duten kalejiraren ordez, Zaldibar Argitu Orain! ekimenak deituta kalejira aldarrikatzailea egin zen, koke-jantzi eta guzti. Bestela, Udalak egunerako antolatuta zituen beste jarduereri eutsi zitzairen. Aratoste Domekarako ...eta kitto! Euskara Elkartearen antolatzen duen play back lehiaketa ere bertan behera laga zuten antolatzaileek eta, beraz, goizean Usartza txistulari taldekoek egindako kalejira, besterik ez zen egin. Eta Aratoste Martitzenean, ohikoa den moduan, Astixaren jolasekin, Jainagaren trikixka eskolakoek lagundutako sardinaren entieru txikiarekin eta umeendako berbenarekin agurtu genituen Aratosteak, datorren urtekoak alaiagoak izateko gogo eta esperantzarekin.









# Eibarko Udala akusazio partikularra izango da Zaldibarko zabortegiko auzian

Eguaztenean jakitera eman zuten, Durangoko epaitegiak Zaldibarko zabortegiko luiziaren harira irekitako auzian akusazio partikular modura aurkeztuko du bere burua Eibarko Udalak, Ermuko Udalarekin batera.

**E**rabakia Bozeramaleen Batzordean hartu dute, EH Bildu udal taldeak orain dela egun batzuk gobernu taldeari auzian parte hartzeko eskaera idatziz aurkeztu eta gero. Gaia aztertu eta gero, udal ordezkariak duten taldeek aho batez hartu zuten erabakia eta, horrekin batera, adierazpen instituzionala ere onartu zuten.

Zaldibarko luperiari buruzko kasua instrukzio fasean dago Durangoko 1. Instrukzio Epaitegian. Azaldu dutenez, azken astean aukera ezberdinak aztertzen ibili eta gero, bi udalek auzian interesdun moduan aurkeztea erabaki dute, gertatutakoaren nondik norakoak ikertu eta erantzukizunak argitu daitezzen, baita lur-jausiaren ondorioak jasan dituztenen "interesak defendatzeko". Hainbat adituri kon-



Astelehenean egin zen otsaileko ohiko osoko bilkura eten zuen herritar talde batek.

tsulta egin eta bide ezberdinak aztertu eta gero, Bilboko Acies Abogados bulegoaren zerbitzuak kontratatu dituzte. Adierazi dutenez, "Ermuko eta Eibarko Udalek elkarrekin landu dugu gertaera honen inguruan egin beharrekoa, modu koordinatuan eta lankidetzan, baita beste hainbat alorretan egin beharrekoa ere. Beraz, 1. Instrukzio Epaitegian elkarrekin aurkeztea erabaki dugu, baita abokatu bu-

lego berbera kontratatzea ere". Bi udalek berretsi dutenez, "lehenasuna luperiak azpian harrapatutako langileak aurkitzea eta familien beharrei erantzutea izan behar du". Horrekin batera, zabor azpian desagertuta jarraitzen duten Alberto Sololuze eta Joaquin Beltranen senideei babesa helarazi nahi izan diete berriro eta bertan beharrean ari diren langileekin ere oroitu dira.

Institutuko ikasle eta irakasleak gimnasioan batu ziren.



## Zabortegian gertatutakoa salatzen protesta egin zuten Eibar BHI

"Zaldibarko zabortegiaren hondamendiaren eta horren kudeaketa eskasaren ondorioz" Eibar BHI ikastetxeak bere egonezina adierazi nahi izan zuen aurreko barixakuan eta, horretarako, Iasiko ikasle-irakasleak jolasorduan eraikineren aurreko plazan bildu ziren, "Zaldibar Argitu" goiburuko pankartaren atzean. Jardinetako Institutuko gimnasioan, berriz, maskarilla baten irudiaren inguruan bildu ziren ikasle eta irakasleak, euren haserrea eta ezinegona adierazteko.

## Herritar talde batek osoko bilkura eten egin zuen, "Zaldibar argitu" oihukatuta

Astelehenean egin zen otsaileko ohiko osoko bilkura eten zuen herritar talde batek, Udaltza aretoan txistuka, "Zaldibar argitu" eta "Arriola dimisión" esaldiak oihukatzen sartu zenean. Minutu batzuk horrela eman eta gero, euren kabuz joan ziren aretotik kanpora eta plenoak normaltasunez jarraitu zuten.





**Martitzenean egin zen Zaldibar Argitu! herri plataformaren hirugarren batzarra Arrate Kultur Elkarte**an eta bertara joandako guztien artean herri ekimenez sortutako plataformaren aldarrikapen zerrenda adostu zuten. Bestalde, plataformak sare sozialetan (oraingoz Twitter eta Instagramen) gaiarekin lotutako berri emateko kontuak sortu ditu: Twitterren @ZaldibarArgitu eta Instagramen Zaldibar\_Argitu. Bestalde, plataformak asteroko bilerak (martitzenetan, 19:00etan Arrate Kultur Elkarte) egiten jarraituko duela gogorarazi nahi die herritarrei eta bertara joatera animatu nahi ditu denak.

### Zaldibar Argitu!-ren aldarrikapen zerrenda

Zaldibar Argitu! herri plataforma zabal eta askotarikoa da eta izaera hori bere egiten du. Otsailaren 6ko gertaera larriek herritar ezberdinak aldarrikapen zehatz batzuen inguruan batzera eraman ditu. Aldarrikapen horiek plazaratu, agenda mediatikoan jarri eta horiek bete daitezela lan egitea izango du helburu. Ondorengo hauek dira Zaldibar Argitu!-k bere egin eta defendatuko dituen aldarrikapenak:

1. Langileak ahal denik eta lasterren aurkitzea, senideei behar duten babesa eta laguntza eskainiz. Erakunde publikoari eskatzea zeregin horretan burubelari murgildu daitezela.
2. Zaldibarko zaborteziaren inguruan gertatu dena, erorketa, zigorrak eza, hondakinen trataera irregularra etab. argitzea.
3. Zaborteziaren zer dagoen zehaztasunez jakitea.
4. Jausi den zabor horrekin guztiarekin zer egin erabakitzeko prozesuan herritarren partaidetza bermatzea.
5. Orain zaborteziaren lanean diharduten langileen segurtasuna bermatzea.
6. Airearen, uraren eta luraren kalitatearen neurketak sistematikoki egitea urtean zehar eta gardentasunez helaraztea informazioa inguruko herritarrei. Informazio horren jasoketa, neurketa eta argitarapena agentzia independente batek egitea.
7. Erantzukizun politikoak eskatzea, batez ere auzi honetan lotura zuzena izan duten politikarien gain. Iñaki Arriolaren dimisioa.
8. Zaldibarko gertaerarekin zuzenean lotuta dauden enpresaren, erakundearen eta eragilearen erantzukizun zehatzak zeintzuk diren argitzea, eta informazio hori publiko izatea.

9. Osasun publikoari eta herritarren bizi kalitateari dagozkion gaiak kontrol demokratiko zorrotz eta arduratsuen pean egotea bermatzea, beharrezko lege aldaketak eginez eta herritarrei uneoro

informazio gardena eskainiz mekanismo publikoen bidez.  
10. Hondakinen kudeaketa zuzen eta zentzuzkoa aldarrikatzea, egungo ereduaren birplanteamendu sakon eta zabala eginez.

11. Erakunde publikoek, beharrezkoa den trantsizio energetiko, ekologiko eta sozialerako plan argi eta zehatz bat bere egin eta eduki argietara konprometitzea, Zaldibar bezalako gertaerak errepikatu ez daitezela.

**BERRIA**  
NUEVO

MOD 2020

**abiato 2.0**

Autobideetako zein aparkalekuetako hesiak irekitzen ditu!

Bertsio eguneratua eta potenteagoa!

Egungo deskontu-sistemarekin jarraitzen du!

Orain Frantzia osoan ere bai!

Gero eta autobide eta aparkaleku gehiago!

Autopista eta parking gehiago erabilgarri. Utilizable en más autopistas y más parking.

Euskadi, Estatu, Portugal eta orain, Frantzia osoan ere bai. En Euskadi, en el Estado, en Portugal y, ahora también, en toda Francia.

Moiakako deskontu sistema. Sistema progresivo de descuentos.

**GOGOAN IZAN**  
**abiato 2.0 BERRIAK**  
**ESKAITZEN DIZUN GUZTIA!**

**BIDEGIk teleordainketa-gailuaren berria den bertsio hobetu bat atera du gipuzkoar guztientzat.**

**Prestazio berriak, erabilera-eremu handiagoa, deskontu-sistema bera...**

**Abiatu gailuaren erabiltzailea izan ala ez, dagoeneko [abiato.bidegi.eus](http://abiato.bidegi.eus)-en eska dezakezu gailu berria.**

← Eskatu!

**BIDEGI**

**Informazio gehiago:** info@bidegi.eus | 943 105 106 | GI-20 - KP / PK 14,800 - Aritzeta-Usurbil



**Izaskun Rodriguez Elkoro (Lagun Artean):**

## “Guatemalako errealitatea Euskal Herrira gerturatzea dut helburu”

Guatemalarekin harreman berezia du Izaskun Rodriguez Elkorok, eta Euskal Herriaren eta Erdialdeko Amerikako herrialdearen arteko ekimenez arduratzen da Lagun Artean erakundearen. Egoitza Algortan izan arren, ekintza ugari antolatzen dituzte Eibarren. [www.lagungt.org](http://www.lagungt.org) webgunean, erakundearen Facebookeko edo Twitterreko kontuetan, [info@lagungt.org](mailto:info@lagungt.org) helbidera idatzita edo 633412905 - 944042671 telefono zenbakietara deituta lortu daiteke informazio gehiago.

### - Nolako lana egiten duzu Lagun Artean elkartearen?

Gizarte eraldaketarako hezkuntza ardura-duna naiz eta Guatemalako errealitatea Euskal Herrira gerturatzea da nire helburuetako bat. Beti ere, pedagogia kritiko, dekolonizatzaile eta feminista batetik. Bestetik, Euskal Herriko beste elkarte batzuekin herritartasun-alternatibak sortzeko eta praktikan jartzeko zereginak egiten ari gara, bi herrialdeen arteko ekimenak sustatuz.

### - Nola hasi zinen Lagun Artean erakundearen lanean?

2012. urtean boluntario sartu eta orain dela pare bat urte lanean hasi nintzen. Guatemalarekin harreman handia izan dut Eusko Jaurlaritzaren beka batekin herrialdea bisitatu nuen lehen alditik. Beraz, gogotsu heldu nion.

### - Nolako esperientziak bizi izan dituzu aurretik arlo horretan?

Egoaiziak eman zidan lankidetzaren mundua ezagutzeko aukera. Han ikasi nuen Euskal Herritik lankidetzaren egitea zer den, Eibartik zehazki, eta Peruko proiektu bat ezagutzeko aukera izan nuen. Harrezkero, hainbat beka aprobetxatuz, Perun eta Guatemalan izan naiz hainbat alditan, eta emakumeen jabetze-prozesuak sustatzeko helburua duten hainbat proiektutan lan egin dut boluntario.

### - Zeintzuk dira Lagun Artean elkartearen lan-ildo nagusiak?

Hiru dira: Garapenerako Lankidetzaren, Patojas Ikasketa Beken Proiektua eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza. Garape-



nerako Lankidetzari dagokionez, 25 urteko esperientzia dugu Guatemalan, eta hango emakumeak ahalduntzea da helburua. Bestetik, Patojas Ikasketa Beken Proiektua Guatemalan garatutako ikasketen beka programa bat da eta banakako donazioen bidez baliabide urriak dituzten neskei, mutilei eta emakumeei ikasteko aukera ematen zaie. Eta azkenik, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzari dagokionez, euskal herritarren kontzientziazio kritiko, dekolonizatzaile eta feministaren alde egiten dugu, eta munduko herritartasunaren alternatibak bilatzen

eta eraikitzen dituzten prozesuetan laguntzen dugu.

### -Zergatik Guatemala?

Oso galdera ona! Algortako lagun talde batek orain dela 25 urte Guatemalara egin zuen bidaia baten ondorioz sortu zen Entreamigos-Lagun Artean elkartearen. Euskal Herrira bueltatzean, bidaiaren bizi zituzten esperientziak aztertu zituzten, eta Guatemalako egoera hobetzeko nahiarekin martxan jarri eta lanean hasi ziren.

### - Norbaitek interesa izango balu, nola egin dezake bat elkartearekin?

Gure bazkideek hileroko donazio bat egiten dute normalean eta, horrekin, Patojas Beken Proiektuarekin bat egiten dute. Ez dugu diru kopuru finkorik eta zehatzik eskatzen, donazioak libreak dira. Bakoitzak ahal duen neurrian proiektuaren parte izatea eta Guatemalako haur eta emakumeen hezkuntzan laguntzea da gure helburua.





# BERBALAGUNAK DINAMIKA BERRIETAN BURU-BELARRI

Berbetan mintzapraktika-programak 17. ikasturtea egiten dihardu aurten. Ibilbide luze horretan euskera praktikatzeko sortutako egitasmoa asko hazi da, eta gaur egun ehunetik gora berbalagun dira. Oinarria, baina, ez da aldatu. Astean behin ordubete elkartzen dira euskeraz berba egiteko ohitura dutenak ohiturarik ez dutenekin, giro informalean euskera praktikatzeko. Giro lasai horri esker, ia konturatu gabe egiten dute **jauzi erabilerara**.

Baina, astean behin elkartzeaz gainera, bestelako ekintzak ere eskaintzen zaizkie berbalagunei. Iaz arte, esaterako, tribial lehiaketan gustora eta lehia bizian jardun zuten taldeek, eta ez zen gutxiagorako, irabazleek saria jasotzen baitzuten ikasturte amaieran. Aurten, berriz, dinamika berri bat eskaini die berbalagunei ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Hilero proba bat egin behar dute, eta probetako batzuetan argazkiak eskatzen zaizkie; orri honetan bertan ikus ditzakezue hainbat adibide.



Berbetan mintzapraktikako programa

**Eman izena!**

943 20 09 18 / [elkartea@etakitto.eus](mailto:elkartea@etakitto.eus)



Lehenengo proban San Andresen gurutzea aurkitzeko hainbat pista eman zitzaizkien. Untzaga Plazakoa aurkitu behar zuten, baina talde bakoitzak bere erara ulertu zuten.



Hirugarren proban Toribio Etxebarria jaiotzen etxea aurkitu behar zuten.





Azken urteotan Euskal Herriko hainbat herritan (Ondarroa, Errenteria, Ermua, Basauri...) emakumeen aztarnak bistaratu eta ikertu ditu Zaida Fernandezek, baita Eibarren ere. Horretarako, hainbat saio egin zituen herriko emakumeekin eta, hortik abiatuta, 'Emakumerik gabe, Eibar, ez litzateke gaur egungoa izango' liburua sortu du Savina Lafita Sole eta Luz Maceira Ochoarekin batera. Martxoaren 13an, 19:00etan, liburua aurkeztuko dute Portaleko erakusketa gelan eta, gainera, gaiaren inguruko erakusketa zabalduko dute martxoaren 29ra arte.

## **ZAIDA FERNANDEZ** (Andretxea):



# “Emakumeek funtsezko lana egin zuten Eibarko industrializazio prozesuan”

**- Zer jaso duzue 'Emakumerik gabe, Eibar, ez litzateke gaur egungoa izango' liburuan?**

Emakumeen Mahiak eta Udaleko Berdintasun zerbitzuak hala eskatuta egindako lana da eta Emakumeen Mahaiko partaideek aukeratu zuten libururen gaia eta izenburua. Han eta hemen izan gara aztarnen proiektuarekin eta ekimena aurkezten dugunean parte hartzea sustatzen dugu. “Zer nahi duzue berreskuratu? Zein aztarna? Zertarako? Zergatik?”, galdetu genien Eibarko saioetan parte hartu zutenei, eta eurek erantzun zuten Eibarren industrializazioa oso fenomeno garrantzitsua izan zela, herrian oraindik identitate hori badela, eta gai hori genero ikuspegi batetik landu nahiz zutela.

**- Nola landu duzue gai hori liburuan?**

Memoria kolektiboaren saioak eta elkarrizketa pertsonalak egin genituen, eta hori islatzen da liburuan. Memoria kolektiboaren saioak irekiak izaten ziren eta saio bakoitzean gai bat lantzen genuen (baserria,

zaintza, ezkutuko lana, damaskinatua...). Emakumeen aldetik informazioa jasotzeaz gain, hausnarketa- eta jabetze-prozesua egiten genuen. Hasieran, emakumeei industriaren inguruan zer egin zuten galdeztzean, ezer egin ez zutela erantzuten zuten; eta saioen erdialdean edo amaieran, ostera, “guk egin dugu Eibar, gu barik Eibar ez litzateke gaur egun dena izango eta industria ez litzateke izan den bezain garrantzitsua izango” esaten zuten. Horregatik da beharrezkoa hausnarketa egitea. Beste alde batetik, hau ez da lan historiko bat, oroimen-lana baizik. Gaiari testuinguru historikoa ematen diogu, baina pate hartu duten emakumeen testigantzak jasotzen ditugu batez ere.

“Alde batetik, industria mesedegarria izan da emakumeentzat; baina bestetik, bidegabea”

**- Liburua urteetako lanaren emaitza da. Nolako lan-prozesua egin duzue?**

Savina Lafita Sole, Luz Maceira Ochoa eta hirurok idatzi dugu liburua. Genero eta ikerketa feministaren inguruko masterra egin ondoren, Luz Maceira Ochoa ezagutu nuen. Berak oroimen-proiektu bat egin zuen Mexikon eta, aztarnen proiektua ezagutu zuenean, nirekin lan egitera animatu zen. Aztarnen lana hainbat herritan landu genuen eta lan bakoitza artisau-lana izan zen, herri bakoitzean zer berreskuratu nahi zuten erabaki zutelako emakumeek. Luzek Savina ezagutzen zuen eta, esku artean lan asko genuenez, gurekin hasi zen lanean. Ahots-grabazio asko genituen, grabatutakoa transkribatu egin behar genuen, hortik informazio atera, landu, sailkatu... Lan asko egin behar izan dugu, baina polita izan da. 2015ean hasi ginen Eibarko lanarekin, eta hamar saio eta lau elkarrizketa pertsonal egin ditugu.

**- Zeintzuk dira Eibarko industrializazioan emakumeek egindako ekarpen nagusiak?**



Basauriko eta Errenteriako industrializazio-prozesuekin alderatuz, Eibarkoa oso ezberdina da. Hemen dagoen ekintzailtza kultura azpimarratuko nuke. Adibidez, hasieran armak egiten ziren, gero kontestua aldatu egin zen eta armak egiteko makinak beste produktu batzuk egiteko erabiltzen hasi ziren. Bestetik, liburuko emakumeek diote "lan, lan eta lan" egin dutela. Maileguak eskatu, negozioak abiatu... oso ausartak izan dira eibartarrak. Parte-hartzaile batek esan zuenez, Eibarrera heltzean "hau Hollywood da", esaten zuten, askatasuna arnasten zelako. Eibar oso aurrerakoa izan da. Beste alde batetik, oso industria artistikoa landu da hemen, eta horren adibide da damaskinatua.

**- Emakumeek industrian presentzia gehiago izan dezaten lagundu du Eibar herri aurrerakoa izateak?**

Beste herri batzuekin alderatuz, emakumeek maila orokorrean izan dute presentzia gehiago Eibarren, ez bakarrik industrian. Baina kontua da industria edo industrializazio prozesua nola definitzen dugun. Industria berba aipatzean kea darion fabrika eta urdinez jantzitako langileak etortzen zaizkigu burura, hau da, produkzioa. Baina industrializazio prozesua ikuspegi feminista batetik lantzen badugu, produkzioaz haratago joan behar dugu. Zaintza, etxeko lana, ezkutuko lana, apopilotza... hori guztia industria zen, izebergaren oinarria. Funtsezko lan hori, industriaren motorra izan den aitortua izan ez den lana, emakumeek egiten zuten.

**- Industrializazio prozesuaren sasoian emakumeek zailtasun asko izan zituzten?**

Kontu hori liburuan ondo islatzen dela uste dut. Alde batetik, industria mesedegarria izan da emakumeentzat; baina bestetik, bidegabea. Adibidez, emakume batzuek ezkutuko lana egiten zuten, ezin zuten kotizatu eta ez zitzairen lana aitortzen. Bestetik, lantegietan sexuaren ara-



Martxoaren 13an liburua aurkeztuko dute eta erakusketa zabalduko.

“Eibarrera heltzean “hau Hollywood da”, esaten zuten, askatasuna arnasten zelako”

berako lan bereizketa egiten zen, emakumeek diskriminazioa eta sexu jazarpena jasaten zuten, baita lan gehiegikeria eta esplotazioa ere, eta lan bera egiteagatik gutxiago kobratzen zuten. Hori guztia eurek kontatu digute.

**- Nolako ondarea utzi dute Eibarko industrializazioan parte hartu zuten emakumeek?**

Bide bat ireki zuten. Ez dakit euren oinordekotza jaso dugun, baina badakit eurekin zorretan gaudela eta liburu hau zor hori ordaintzeko ekarpen txiki bat da. Zerbait aitortu ahal izateko, ezagutu egin behar dugu lehenik. Horregatik dira beharrezkoak horrelako lanak. Askotan ez dugu ezagutzen gure amamek egindakoa eta, egin du-

tena ezagutzen dugunean, beste modu batean begiratzen ditugu. Eurek ez dute kontatzen, ez dute euren burua subjektu bezala ikusten, eta subjektu historikoak izan direla aldarrikatu eta aitortu behar da.

**- Martxoaren 13an, liburua aurkezteaz gain, erakusketa zabalduko duzue Portalean.**

Ez da ohiko erakusketa izango. Nahiko orijinala eta artistikoa izango da, berezia. Proiektuan parte hartu duten emakume batzuek prozesua nola bizi izan duten kontatuko dute eta emakumeek egindako hainbat objektu egongo dira ikusgai. Bestetik, erakusketa parte-hartzailea izatea nahi dugu eta horregatik eskatu dugu materiala. Beraz, norbaitek Eibarko industrializazio prozesuarekin loturiko dokumentuak, tresnak, erropak, argazkiak edo dena delakoa ekarri nahi badu, eskertuko diogu (Andretxean 9:00etatik 13.00etara eta 16:00etatik 20:00etara).



*Jon Mikel Mujika*

Euskera ez da gaitz bat,  
euskerak ez du inor hiltzen.  
Kendu maskarilak eta,  
lehen hitza, beti euskeraz.

## Kendu maskarilak

**Asteak igaro dira koronabirus delakoak Txina osasun-kriseko egoeran murgildu zuenetik.** Txinako erdialdeko hiririk populatuena den Wuhan hirian piztu zen alarma, bertako ospitaleetan gripearren antzeko sintomak zituzten gaixo kopurua biderkatu zenean.

Txinako agintariek neurri latzak hartu behar izan dituzte birusaren hedapena geldiarazteko. Eskola eta enpresen itxierak, etxeratze-aginduak herritarrentzat, aireportu eta tren estazioetan osasun kontrolak... denetik egiten saiatu dira. Hamar eguneko epean mila oheko edukiera duen ospitale berri bat ere eraikitzeke gai izan dira.

Gurera ere heldu dira birusaren kontrako txinatarren ahaleginak. Hedabideetan zabaldu dute euskal herrian bizi den txinatar jatorriko bikote bat borondatez jarri dela berrogeialdian. Errespetuz, gizatasunez, edo beldurrez agian, baina 15 egun etxetik irten gabe egongo dira prebentzio gisa, euren auzokideak lasaitu eta ez kutsatzeko.

Txinatar hauen ekinbideak, sarritan euskaldun askok euskararekiko daukagun jarrera gogorarazi dit. Ezezagun batekin topo egiten dugunean, jaiotzetik geurea dugun hizkuntza, gaixotasun bat izango balitz bezala ezkututzen dugu. Parean dugunari enbarazu egingo diogulakoan edo.

Euskera ez da gaitz bat, euskerak ez du inor hiltzen. Kendu maskarilak eta lehen hitza, beti euskeraz.

Euskera ez da gaitz bat, euskerak ez du inor hiltzen. Kendu maskarilak eta lehen hitza, beti euskeraz.

*Koldo Edorta Carranza*

Noizbait entzungo ahal dugu  
nor bait Los Angeleseko Kodak  
Antzokian Aitorren hizkuntzan  
"eskerrik asko" esaten!

## Hizkuntzentzako saria

**Badirudi azkenaldian ikur berriak daudela zinemaren erakusleihen handiengan, hau da, Hollywood-en.** Orain dela gutxi, Parasite (Gisaengchung) filmak mugarrira ezarri zuen, Pelikula Onenaren Saria irabaztea lortu baitzuen, Nazioarteko Pelikula Onena Saria irabazteaz gain. Azken honek orain dela gutxira arte Atzerriko Hizkuntzan Pelikula Onena Saria zeukan. Izendapen aldaketa korapilatsuok zinemagintzan eta kulturgintzan gertatzen ari diren aldaketak islatzen dituzte: ikus-entzunezko arrakastatsuenak gero eta hizkera askotarikoetan mintzatzen dira. Ingeleseztan jarduten ez duen ekoizpen batek halako aitortza jasotzeko ikusgarritasuna eman dio bere hizkuntzetan egiten den zinemagintzari. Izan ere, ikusleriari arreta publikoa erakarri ohi duten lan estatubatuarrez gain interesgarriak diren proposa-

menak badaudela ziurtatu dio. Modei jaramon egin ohi dion gizarartean, pagotxa da bat-batean kaletarrak tropelean zinema aretoetara joatea askotan azpitoluekin kontsumitu beharko duten filmaz gozatzera. Zehazteke dago joera hori egonkortuko den, eta oihartzuna izango duen beste hizkuntza batzuetan landutako sorkuntzetan. Estatu mailan, aurten O que arde galiziarrez hitz egiten duen pelikulak zeresan handia eman du Goya Sarietan, bereziki Benedicta Sánchez Lugoko aktore hasiberriagatik. Gainera, ez dezagun ahaztu euskarazko Loreak-ek Oscarretan egoteko aukera izan zuela orain dela urte batzuk, beraz etorkizunerako bidean lehen urratsak eman ditugu. Noizbait entzungo ahal dugu nor bait LA-ko Kodak Antzokian, Aitorren hizkuntzan "eskerrik asko" esaten!





# Etxeak zure esku

## Inmobiliarien gehigarria

Eibarren gaur egun daukagun etxebizitzaren eskaintza oso zabala da. Bigarren eskuko etxebizitza zein berria nahi izanez gero, herrian ditugun inbiliarrietara jotzea besterik ez daukagu. Horietan diharduten profesionalak behar dugun informazio guztia emango digute: etxebizitzaren kokapena, orientazioa, metro karratuak, ezaugarriak, zein egoeratan dagoen, prezioa...

Eskuartean daukazun gehigarri hau lagungarri izango zaizuela uste dugu. Eta informazio gehiago nahi izanez gero, konpromisorik gabe joan zaitezke sektore honetako adituengana: zeuen premiei erantzuteko prest egongo dira.



[www.aukera-inmobiliaria.com](http://www.aukera-inmobiliaria.com)  
943 12 13 95 Bidebarrieta 29



**Arane. Eibar** Ref. 1723  
2 logela. Terraza. Garaje eta trastelekuarekin. Kalefakzioa eta igogailua 0 kotara. 210.000€



**Sostoatarren. Eibar** Ref. 1673  
Apartamentua. Berriztua. Altxariek. Igogailua 0 Kotara. 140.000€



**Urkizu. Eibar** Ref. 1622  
2 logela. Altxariek. Kalefakzioa, trasteleku eta igogailua 0 kotara. 155.000€



**San Agustin. Eibar** Ref. 1232  
3 logela eta 2 komun. Guztiz berriztua. 2 trastelekuarekin. 320.000€



**Txaltxa Zelai. Eibar** Ref. 1577  
3 logela eta 2 komun. 2 balkoi. Igogailua. Trastelekuarekin. Garajea aukeran. 255.000€



**Juan Gisasola. Eibar** Ref. 1740  
3 logela (4 egiteko aukera). Balkoia. Igogailua 0 kotara. Garajea aukeran. 238.000€





# Etxeak zure esku

Inmobiliarien gehigarria

## Higiezinaren eraginkortasun energetikoa, kontsumitzaileen eskubidea

Higiezinaren eraginkortasun energetikoa higiezinaren funtsezko ezaugarria da, erkidegoko eta estatuko araudiaren arabera, eta, ondorioz, kontsumitzaileek informazioa jasotzeko eskubidea dute, eta higiezinaren agentziek (fisikoek edo birtualek), berriz, informazioa emateko betebeharra. Beraz, derrigorrezkoa da etiketa energetikoa etxebizitza bat saldu edo alokatzeko egiten den edozein merkataritza-jarduerarekin batera aurkeztea. Adibidez, besteak beste, higiezinaren agentzien erakusleihatuan eta Interneteko hainbat ataritan, saldu edo alokatu nahi den higiezinaren etiketa energetikoa agertu beharko da.

Etiketa energetikoak, besteak beste, eraikin baten kalifikazio energetikoa erakusten du. Kalifikazio energetikoaren eskala zazpi letra korrelatiboak dira. A letratik (energetikoki eraginkorragoa den eraikina) G letrara (energetikoki eraginkortasun txikiagoa duen



eraikina). Gainera, beste datu batzuen artean, urteko energia-kontsumoari (kWh/urte eta kWh/m<sup>2</sup>) eta urteko CO<sub>2</sub> kontsumoari (kgCO<sub>2</sub>/urte eta kgCO<sub>2</sub>/m<sup>2</sup>) buruzko informazioa ere jasoko da.

*inmobiliaria*  
**IbaiOndo**  
*Home Staging*  
Bidebarrieta, 24  
Tel. 943 201213  
www.inmoibaiondo.com  
ibaiondo@inmoibaiondo.com



**dp donpiso**  
FIDATU ZAITEZ PROFESIONALETAZ BAKARRIK  
Isasi, 16  
EIBAR  
M. Valdespina, 12  
ERMUA  
www.donpiso.com 943 82 05 10  
Zure etxea saltzeko  
modurik azkar, errez  
eta eraginkorrena  
donpiso@donpisoieibar.com  
618 769 839

**HIGIEZINAK**  
**ARREGI**  
INMOBILIARIA  
Errebal, 20  
Tel./Faxa. 943 203 333 Mobila. 656 766 344  
www.inmoarregi.com

Arragueta, 2 bis B-behea  
943 20 08 60  
agencia  
inmobiliaria  
**Juaristi**  
A.P.I.: Rosa Juaristi  
■ salerosketak  
■ errentamenduak  
■ balioztatzeak  
rosa@inmobiliariajuaristi.com  
www.inmobiliariajuaristi.com

- **Gestio inmobiliarioa:** alokairuak, erosketak, salmentak, tasazioak, kontratuak...
- Galdetu zure etxebizitzaren **Finantziatorako Bidea:** mailegu hipotekarioak, pertsonalak...
- **Informazio Pertsonalizatua**



Toribio Etxebarria, 1  
943 20 03 58  
fincas@euki.com  
www.euki.com



**TORIBIO ETXEBARRIA** 225.000€  
5 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta komuna. Iggogailuarekin.  
Etiketa energetikoa:  
CEE/CAPV/2017/00100/250E




**BARAKALDO** 225.000€  
80 m<sup>2</sup>. 3 logela, egongela, sukaldea eta bi komun. Barrera arkitektonikorik gabe. Eraikinean bertan garajea aukeran.  
Etiketa energetikoa: CEE/CAPV/2019/00156784E



**UNTZAGAKO DORREA** Galdetu  
105 m<sup>2</sup>. Ileaipaindegirako instalazioak dituen lokala. Edozein erabilerarako egokia. Aukera mordoak. Etiketa energetikoa: CEE/CAPV/2019/00162549E



**ERREBAL** Galdetu  
125 m<sup>2</sup>. 4 logela, egongela-jangela, sukalde-jangela eta bi komun. Trasteroarekin. Egoera onean. Etiketa energetikoa: CEE/CAPV/2014/00007385E




**ROMUALDO GALDOS** Galdetu  
60 m<sup>2</sup>. 2 logela. Egongela, sukaldea eta komuna. Konpontzeko. Kanpora begira.  
CEE/CAPV/ 2019/00155420E



**ELGETA-PLAZA** 220.000€  
115 m<sup>2</sup>. 3 logela, egongela-jangela, sukaldea eta bi komun. Estreinatzeko. Kalitatezko materialekin berriztua. Iggogailua eta kalefakzioa. Etiketa energetikoa: CEE/CAPV/2019/00164632E



**TORIBIO ETXEBARRIA** Galdetu  
80 m<sup>2</sup>. 3 logela, egongela, sukalde, bainugela eta komuna. Konpontzeko. Aukera asko ditu. Etiketa energetikoa: CEE/CAPV/2019/00164774E



**SANTAÑES** Galdetu  
3 logela, egongela-sukaldea eta bi komun. Berriztua. Kanpora begira. Iggogailu eta kalefakzioa. Etiketa energetikoa: CEE/CAPV/2019/00159029E



**ARMAGIN** Galdetu  
91 m<sup>2</sup>. 3 logela, egongela-jangela, sukaldea eta bi komun. Egoera onean. Trastelekua. Eraikinean bertan garajea aukeran. Etiketa energetikoa: CEE/CAPV/2019/00166016E

**GARAJE eta LOKAL**  
**KOMERTZIAL ETA INDUSTRIALEN**  
Salmenta eta alokairua



Etxebizitzak eta lokalak saldu eta/edo alokatzeko, nahitaezkoa da higiezinaren etiketa energetikoa lortzea. Gure bulegoetatik pasa eta informazioa emango dizugu.



Astelehenean ez zen aulki bat ere libre gelditu Arrate Kultur Elkartearen Ahoztar Zelaieta kazetari eta kriminologoak eskaini zuen hitzaldian. 'El narco oasis vasco' liburua aurkeztu zuen (2. edizioa kaleratu du dagoeneko), eta Euskal Herriaren eta narkotrafikoaren arteko loturak azaldu zituen. Gure lurraldeko ustelkeriaren inguruko hainbat liburu idatzi ditu eta beste bat idazteko proposamena jaso du Zaldibarko zabortegean gertatutakoaren harira.

**- Euskal oasia ameskeria hutsa besterik ez da?**

Oasi izateko baldintza batzuk ematen dira Euskal Herrian. Ustelkeriaren eta narkotrafikoaren aurka egiteko tresna gutxi dade. Epaitegietan edo imajinario sozialean ustelkeriaren eta narkotrafikoaren inguruan dagoen erregistroa izebergaren punta besterik ez da. Hemen ustelkeria dago, baina urperatuta. Ia ez dago ustelkeriari eta narkotrafikoari buruzko erregistro judizialik. Ertzaintzak ezintasuna du horri aurre egiteko, gai horiek ikertzeko oso langile gutxi duelako eta daudenak espezializatu gabe daudelako. Gainera, fiskalak eta epaileek ustelkeriari aurre egiteko erramintarik ez dutela esan dute publikoki. Ustelkeriaren aurka borrokatzen bakardadea sentitzen duela aipatu du EAEko fiskal nagusiak, adibidez. Bere aurretik beste fiskal nagusi bat zegoen eta, hark esan zuenez, nahiz eta ustelkeriaren aurka salaketa asko egon, epaitegietara oso gutxi heltzen dira. Gainera, ustelkeriarekin nahastuta dagoen jende boteretsuak abokatu oso onak dituela salatu zuen eta, ondorioz, oso indartsu sentitzen direla justiziaren aurrean. Beste alde batetik, alderdi batzuek ez dute borondate legislatiborik ustelkeriari aurre egiteko. Ustelkeria ikertzeko ertzain gehiago zuzentzeko proposamenari edo ustelkeriaren aurka egiteko bulegoa zabaltzeari ezezko botoa ematen diote Legebiltzarrean, besteak beste. Beraz, bai, EHn oasia dago, baina zentzu horretan.

**"Ez genuen gure kapoei buruzko erretratorik eta hori egiten saiatu naiz"**



**AHOZTAR ZELAIETA** (kazetaria eta kriminologoa):

## "Euskal Herria toki estrategikoa da narkotrafikoarentzat"

**- EHK narkotrafikoaren Txapeldunen Ligagan jokatzeko duela esan izan duzu. Nola iritsi zen maila horretara?**

Narkotrafikoaren bilakaerari buruzko ikerketa egin dut liburuan. Testigantza ugari jaso ditut, legearen alde batetik (poliziak, fiskalak, epaileak, abokatuak, erakundeak...) zein bestetik (narkotrafikoarengatik inputatutakoak), eta baita dokumentu ugari ere (hemerrotekatik, poliziaren oharra, fiskalen akusazioak, sumarioak, sententziak...). Dokumentuetan hitz-gako batzuk azpimarratzen hasi nintzen eta hiru nagusitzen ziren: bitartekaria, alternatiboa eta estrategikoa. 80. eta 90. hamarkadetan EH bitartekaria zen narkotrafikoaren barruan. EH bitartekari bezala agertzen da dokumentuetan, Kolonbiatik edo Marokotik droga ekarri, Andaluziara edo Galiziara

eraman eta Europara zabaltzeko. 90. hamarkadatik aurrera EH toki alternatiboa bihurtu zen drogaren saretzean, Andaluzian eta Galizian zegoen presio polizial eta mediatiko handiaren eta alarma sozialearen ondorioz. Azken urteotan, ordea, EH toki estrategikoa da narkotrafikoarentzat.

**- Begien aurrean dugu narkotrafikoak EHn sortu duen aberastasuna?**

Narkotrafikoaren dirua nola dibertsifikatzen den aipatzen dut liburuan. Narkotrafikoak eta prostituzioak ekarpen handia egiten diote EAEko Barne Produktu Gordinari (Ertzaintzaren urteko aurrekontua baino diru-kopuru handiagoa). Bestetik, narkotrafikoaren zuriketaren bankuek duten papera azaldu dut. Gure bankuak ezinbesteko kolaboratzaileak dira narkotrafikoa lodi-tzeko. Narkotrafikatzaileentzat bankuen



kolaborazioa beharrezkoa da dirua zuritze-ko, negozioa dibertsifikatzeko, paradisu fiskaletan lan egiteko, eta abar. Diru hori mezenasgo bitartez zuritzen da. Euskal Herriko ekitaldi kultural eta kirol-ekitaldi garrantzitsu asko mezenasgo baten esku datoz, eta mezenasgo hori EHko mafiari lotuta dago. Horrela, euren presentzia gizar-tean normalizatzen dute.

**- EHN mafia badago, mafiaburuak egongo dira, ezta?**

70. hamarkadan AEBra bizitzera joan zen bilbotar baten istorioa kontatzen dut liburuan, benetan existitu zen pertsona bat. 80. hamarkadatik 2017 urtera AEBko mafia italiarreko bi familiaren harreman zuzena izan zuen (bost familia nagusi daude) eta, bere ibilbideari jarraituz, EHko mafiaburuak aurkezten ditut. Ezezagunak ziren, ez genuen euren erretratorik, eta narkotrafikoko pertsonaia ospetsuekin lotu ditut (Sito Miñanco, Marcial Dorado...). 90. hamarkadan sei narkotrafiko sare zeuden EHN eta seirak zeuden Galiziako kapoekin lotuta. Galiziako kapoen argazkiak eta ize-nak baditugu, euren inguruan telesailak egin dira, baita liburuak idatzi ere, baina ez genuen gure kapoei buruzko erretratorik eta hori egiten saiatu naiz.

**- Arazorik edo gainditu ezinako hormarik aurkitu duzu ikerketa prozesuan zehar?**

Ikerketak egitean beti daude arazoak, baita norberarekin ere. Estereotipoak dituztu, iritzia eta datu errealak nahastu ditzakezu, mehatxu batzuk nola saihestu eta beste batzuei nola aurre egin aztertu behar duzu, eta abar. Liburu hau publikatu aurretik beste sei liburu publikatu ditut ustelkeria politikoaren inguruan, eta arazo larriagoak izan ditut ustelkeria ikertzen narkotrafikoa edo prostituzioa aztertzen baino. Narkotrafikoaren munduko jendeak kode bat dauka eta kode hori ulertzen baduzu, arazo gutxiago izango dituzu. Politikagintzan ez dago koderik eta inoiz ez dakizu nola erabili ahal zaituzten, iturrien interes erreala zein den edo azpijana nola egingo dizuten.

**- Iturriak dira horrelako ikerketa-lanak egiteko gakoak?**

Testigantzak eta dokumentuak oso garrantzitsuak dira, baina informazioa kontrastatzeko kriterioa edukitzea da garrantzitsuena. Horretarako entrenamendua behar da eta nik badut, 90. hamarkadatik arlo honetan lan egin dudalako. Garrantzitsuena ez da egia bilatzea, egia bilatzeko egiten duzun ibilbidea baizik. Bide horretan akatsak egin ditzakezu, ez zara egia biribila lortzeko gai, baina bide hori egin behar duzu, arduratsua izan behar duzu. Horrela eginez gero, iturriek errespetua izango dizute, ez zaituzte erabiliko eta dokumentu ezberdinetatik ondorioak ateratzeko gauza izango zara.

**- Ze egoeratan dago ikerketa kazetari-tzak gaur egun?**

Tokian tokiko hedabideetan ikerketak egiten dira, baita hedabide handietan ere, baina kazetariak dute motxila gainean. Ez dago ikerketa kazetaritza lantzen duen kazetari talderik, ezta kontzientziarik ere, eta horrelako gaiak landu nahi dutenek bakar-dadean egin behar dute lan (ez ditugu aforiak egiten, iturriak partekatzen, gaiak elkarrekin lantzen...). Gainera, kanpoko presio-az gain, kazetariak arazoak izaten dituzte

**“Arazo larriagoak izan ditut ustelkeria ikertzen narkotrafikoa edo prostituzioa aztertzen baino”**

barne presioen ondorioz. Hedabideak iker-tua izaten ari den pertsona edo enpresa horren deia jaso dezake, publizitatea lortzea arriskuan egon daiteke, eta abar. Bestetik, hedabideen kultura aldatu egin da. Kazetaritza deklaratioa egiten dute gehienek eta, horrela, hainbat orri erraz eta merke betetzen dituzte arrisku handirik hartu gabe. Zehaztasun kazetaritza pixka bat egiten da baita ere (boletinetan arakatzea, datu estatistikoetan bilatzea...), baina ez da ikerketa kazetaritza. Defizita dugu arlo horretan. Gaurkotasanaren diktadurapean egiten da lan hedabideetan, ez dago formakuntza espezifikorik ikerketa kazetaritzarako eta, autokritika eginez, hor gabiltzanok ez diegu transmisioa egin kazetari berriei.

**- Zaldibarko zaborteziaren inguruan hainbat kontu aipatu dituzu Twitterren. Liburu bat idazteko beste dago gai horren inguruan?**

Liburua idazteko proposamena jaso dut dagoeneko eta egunak aurrera doazen neurrian idaztea posible dela ikusten dut. Egunak pasatu, partiduak jokatu eta drama-irtenbidea eman ondoren, jendeak ogia erosten jarraituko du egunero bezala eta gai hau ez da sinergia indartsu bat bihurtuko sistema-eredu bati aurre egiteko, baizik eta arazo espezifikoko bati aurka egiteko. Zaldibarko eredu baten ondorioa izan da. Zaldibarko beste toki batzuetan gertatzen da, baina inor hiltzen eta autobiodea ixten ez denez, eredu horrek aurrera jarraitzen du. Zubietako erraustegiaren eta Zallako zaborteziaren inguruan sortu diren plataformak prest egongo lirateke liburuan kolaboratzeko eta gaia ikuspegi orokor batetatik lantzeko. Azken finean, EAEko gestio-eredu bati buruz berba egiteko.





## Nora Zabala eta Imanol Egidazu garaile atletismoko pista estaliko Gipuzkoako txapelketan

Pista estaliko junior, jubenil eta kadete mailetako Gipuzkoako txapelketetan Eibarko Klub Deportiboko Nora Zabala urrezko domina lortu zuen 18 urte azpiko mailan eta, 14,11 metroko jauziarekin, aldi berean Espainiako txapelketan parte hartzeko txartela bereganatu zuen; Kepa Marquezek ere hartu zuen parte jubenil maila horretan, 200 metroko proban. Kadeteetan Imanol Egidazuk txapela jantzi zuen 60 metro hesietan eta pisu jaurtiketan; 16 urtetik beherakoen maila horretan, Leire Martin bigarren izan zen bere seriean eta Urko Martinezek eta Manex Sarasuak jauzi hirukoitzean lehiatu zuten. Eneko Osorok, bestalde, Torreveijan jokaturako martxa modalitateko 10 kilometroko Espainiako



txapelketan bere marka hobetu zuen, 50 minututik jaitsita. Hemen goiko seikoteak, bestalde, Hernaniko krosean hartu zuen parte: Alaitz, Izaro, Ugaitz, Mikel, Beñat eta Irati dira.

### Magunazelaia ahizpak Espainiako txapelketan

Azken asteburuan Castellon jokaturako jaurtiketa luzeetako Espainiako txapelketan jabalina jaurtiketan parte hartu zuten atleta biak euren marketan ibili ziren: 16 urtetik azpikoetan Enara zazpi-garren izan zen eta Garoa 8. 18 urtetik beherakoenetan. Bestalde, Izaro Bernedo irabazle izan zen Hernanin jokaturako 1.000 metroko martxa proban.

## Herriko waterpolo bi talde nagusiak sailkapeneko goi-goian

Gizonezkoen senior taldeak Euskal Herriko Liga txapelketaren lidergoan jarraitzen du azken bi jardunaldietan kanpoan irabazi eta gero: aurreko asteburuan Portugaleten Nauticari 6-15 gailendu zitzaion, azkenekoan 9-16 irabazi zion WP Donostiari Paco Yoldi igerilekuan. Bide beretik doa emakumezkoen seniorren taldea eta gaur egun lider da, Bidasoa XXI taldearekin berdinduta. Denboraldi honetan guztiz berriztutako taldeak ez du mugarik eta azken asteburuan 7-8 irabazi zion Leioa WLB indartsuari bere etxean, aurrekoan Orbean Askartza 10-6 menperatu ondoren. Martxa ikaragarria darama emakumezkoen Urbatek eta, hamasei partidutan, bi bakarrik galdu ditu eta beste bat berdindu. Alaitz Ibarrola Euskal Herriko selekzio absoluturako deitu dute gainera. Jubenilen mailan, Urbatek ondo borrokatu bazuen ere, azkenean ei-



barbarrek amore eman behar izan zuten WP Navarra indartsuaren aurrean (13-15). Infantil mistoetan, azkenik, Eibarko taldea 18-10 nagusitu zitzaion Easori.

## Gipuzkoako Eskolarteko xake txapelketaren jardunaldiak Eibarren datozen asteburuetan



Datozen bi domeketan, martxoaren 1ean eta 8an, Gipuzkoako Eskolarteko xake txapelketako Eibarko zonaldeari dagokion fasea jokatu da Eibarko Klub Deportiboko lokaletan. Deporrek berak Gipuzkoako Xake Federazioarekin elkarlanean antolatutako jardunaldiak adin tarteka jokatu dira, 2006 eta 2011 urteen artean jaiotako haurrei zuzenduta dago. Informazio gehiago barixakuetan Deporren edo xakea@deporeibar.com helbidera idatzita lortu daiteke.

## Mendi Jardunaldiak ate joka

Eibarko Klub Deportiboko mendi batzordeak urtero antolatzen dituen jardunaldietako lehen ekitaldia domekako Zuhaitz Eguna izango da eta, handik hiru egunera, eguaztenean, tailerra egingo da Deporren. Aurtengo egitarauan, Bilbao Mendifilm Festivaleko pelikulekin batera, Egoitz Elduaien "Eibartarrak Cervinon" hitzaldia, Juan Vallejoren "Nire mendiak" ikus-entzunezkoa eta Negutrail topaketa-solasaldia Imanol Alesonekin egongo dira.

## Binakako pilota txapelketako kanporaketa izango da jokoan etzi Astelenan

Egun handia dugu Katedralean domekako, arratsaldeko 17:00etan abiatuko den jaialdiko partidu nagusian jokoan izango delako binakako txapelketa nagusiko finalerdietara zein bikote sailkatuko den. Aspek antolatutako jaialdia, gainera, gutxitan ikusten den horietakoa izango da, lehenengo partiduan Zabaleta eta Rezusta lehen mailako atzelariak ere izango direlako. Peio Etxeberria eta Egiguren V.a izango dituzte lagun aurreko koadroetan, Peio Bergarakoekin eta oñatiarra Zabaletarekin. Jaialdiko partidu nagusian zirt edo zart, irabazleek aurrera eta galtzaileek kanpora, horko bikoteek ez dute beste aukerarik izango: Aspeko Al tuna eta Ladis Galarza eta Baikoko Laso eta Albisu, nor baino nor. Amaitzeko, bestalde, promozio mailako txapelketako bi bikote indartsuenek neurtuko dituzte indarrak: Agi-



re eta Eskiroz Peña II.a eta Arangurenen aurka. Jaialdirako sarrerak aspepelota.eus web helbidean erosi daitezke.

## Eibar FT-k Ipurua zalez bete nahi du "Denok bat garaipenaren bila!" ekimenaren eskutik

Hiru partidu jarraian izango ditu 1. Mailako taldeak Ipuruan, hirurak ere hila edo bizikoak ikusita taldeak gaur egun duen egoera sailkapenean. Jaitsiera postuak bi puntura dituzte eibartarrek eta, horregatik, Levante, Mallorca eta Realaren aurkako neurketek pisu berezia izango dute taldearen norabidean. Hori dela-eta, zuzendaritzak 10 euroko sarrerak jarri ditu salgai abonatu eta akziodunentzat eta 2x1 publiko orokorarentzat otsailaren 29an (Levanteren aurka) eta martxoaren 7an (Mallorca aurkari dela) jokatu beharreko partiduetarako. "Denok bat garaipenaren bila!" ekimenaren barruan, Levanteren aurkako partidurako sarrera eskuratzen dutenek Mallorcaren kontrakorako beste doako bat jasotzeko aukera izan-



go du. Leihatila orokorren prezioak honakoak dira: hurrak, 15 euro; fondoa eta B aldea, 25 euro; A aldea, 30 euro; eta erdia, 35 euro. Partidu biak, biharkoa eta datorren zapatukoa, eguerdiko 13:00etan hasiko dira. Martxoaren 10ean jokatuko da atzeratuta geratu zen Realaren aurkako partidua. Bertan behera geratu zen partidurako erosi zituztenen sarrerek oraingorako ere balioko dute eta 10ean joango ez direnei dirua bueltatuko zaie.

## Avia Eibar Saskibaloiak partidu zaila izango du bihar Oñatin

Probintziako 3. Mailan jokatzen duen gure herriko senior taldeak sailkapenean justu aurretik duen Mekalki Aloña Mendiri egingo dio aurre bihar Oñatiko Zubikoa kiroldegian azken jardunaldietako garaipenekin jarraitzeko asmoz. Avia Eibar Saskibaloiko junior mailako talde biek, bestalde, Ipurua gotorleku bihurtu nahiko dute asteburu honetan: nesken taldeak Mutriku hartuko du bihar, 16:30ean, eta mutilenak Legazpiko Andraitz etzi goizeko 09:30ean.



### ASTEBURUKO AGENDA

#### FOBALLA

##### 1. Maila

EIBAR - Levante (bihar, 13:00)

##### Emakumezkoen 2. Maila

Friol - EIBAR (etzi, 12:00)

##### 3. Maila

Sestao River - VITORIA (etzi, 18:00)

##### Emakumezkoen Euskal Liga

EIBAR B - Zarautz (etzi, 18:00)

##### Ohorezko Erregional Maila

EIBAR URKO - Touring (etzi, 12:30)

##### 1. Erregionala

Vasconia - URKI (bihar, 15:30)

EIBARTARRAK - Amara Berri (bihar, 18:00)

##### Emakumezkoen Gorengo Maila

EIBAR - Hondarribia (bihar, 18:00)

##### JUBENILAK

##### Ohorezko Maila Nazionala

Danok Bat - EIBAR (bihar, 12:45)

##### Euskal Liga

EIBAR B - Laudio (etzi, 15:30)

##### KADETEAK

##### Euskal Liga

EIBAR - Zarautz (etzi, 17:45)

#### FOBALL ZALETUA

Ipur Sagardot. - Bar Txoko (bihar, 09:00)

Feredu B. Aires - La Jara (bihar, 09:00)

Durango - Garajes Garcia (bihar, 10:30)

Slow XOK - Chic (bihar, 12:00)

Los Paisanos - JMR Erref. (etzi, 09:00)

Illunpe Areto - Azkena Adahi (etzi, 10:30)

#### ESKUBALOIA

##### 1. Nazional Maila

SOMOS - Uharte (bihar, 18:30)

##### Emakumezkoen Gipuzkoako 1. Maila

MECALBE - Oskarbi Legazpi (gaur, 20:30)

##### Gipuzkoako 1. Maila

Laubide Legazpi - EIBAR (bihar, 19:00)

#### ERRUGBIA

##### Ohorezko B Maila

AVIA - Escor Gaztedi (bihar, 16:00)

##### Emakumezkoen Ohorezko B Maila

AVIA - BUC Barcelona (etzi, 12:00)

#### SASKIBALOIA

##### Gipuzkoako 3. Maila

Mekalki Aloña Mendi - AVIA (bihar, 16:00)

#### WATERPOLOA

##### Euskal Herriko 1. Maila

Fortuna - URBAT (bihar, 15:45)

##### Emakumezkoen Euskal Herriko 1. Maila

CW 9802 - URBAT (etzi, 11:00)

AGENDA OSOA GURE WEB ORRIAN



## Buruntzazpi TX Eskolako txirrindulariak nagusi Udaberri Sarian

Aurreko domeka goizean jokatutako junior mailako Udaberri Sariaren 42. edizioan talde horretako Haimar Etxebarria izan zen lehenengoa helmugan, esprint luze bezain ikusgarrian Beñat Carbayedak taldekideari eta Ulma taldeko Daniel Casais-i segundo bakarreko tartea kenduta. Esprintean ihes egindako 11 txirrindulari sartu ziren eta hor azkarragoak izan ziren Buruntzazpikoak taldekako sailkapena bereganatu zuten Lizarte Ermitagaña taldeko ordezkariak baino. Carbayedak bigarren sailkatuak mendiko saria ere irabazi zuen eta Elgoibarko Lagun taldeko Beñat Fernandez Loiolarentzat



*Irabazleen podiuma Toribio Etxebarria kalean, babesle eta antolatzaileekin.*

izan zen Debabarrenako onenarentzako trofeoa. Guztira 88 txirrindularik hartu zuten parte proban eta eguraldia lagun izan

zuten ibilbidean 78 kilometrotan. Eibarko Txirrindulari Elkarte antolatzaileek "eskerrak ematen dizkie probaren alde

*babesa eskaini dizkien kolaboratzaile guztiei". Martxoaren 22an jokatuko da klubaren hurrengo proba.*



## Foball-zaletuan atzeratutako jardunaldia jokatuko da bihar eta etzi

Asteburu bitan Eibarko foball-zaletuko Kirolbet-es Liga jokatu barik egon eta gero, oraingoan lehiaketara bueltatuko dira taldeak "Zaldibarkoaren eraginez" bertan behera lagatako jardunaldiarekin. Aurreko zapatuan, dena dela, sailkapeneko azken bien arteko aurrez atzeratutako partidua jokatu zen eta hor Chic-ek bere postuari eutsi zion Illunpe Aretoti 3-0 irabazita. Liga amaitzeko sei jardunaldiren faltan, txapelaren kontua Bar Txoko eta Garajes Garciairen artekoari mugatzen da: Txokok bi puntu ateratzen dizkio Garajes-

i eta jarraitzen dietenek ez daude gertu bereziki. Azkena Adahi liderrarengandik 13 puntura dago eta Ferdu Buenos Aires eta Ipur Sagardotegia 15era aurkitzen dira. Azken postuetara begirata, Areto Illunpe oso atzean geratu da, irabaztea zer den oraindik ezagutu gabe eta berdinketa batekin konformatu behar izanarekin. Ateburu honetan Txoko liderrak Ipur Sagardotegia izango du aurkari eta Garajes Garcia sailkapenean bigarrenak Durango, exigentzia maila altua eskatuko dizkien aurkariak, beraz.

## Podiuma oso gertu izan zuen Eibarko bikoteak "Reto Moncayo" txakurkrosean

Aurreko asteburuan Añon de Moncayo herrian jokatutako proba horretan, Sonia Dominguez eta Andoni Mayo maila bikainean ibili ziren, etzi Muskizen jokatuko den Euskal Txakurkros Ligako azken jardunaldira begira indartsu daudela erakutsiz. "Reto Moncayo" bi eguneko proba da: zapatu gauean 7 kilometroko ibilbideari ekin zioten eta domeka goizean "zerbait luzeagoa eta, aldi berean, gogoragoa" osatu zuten. Dominguezek Zeus txakurarekin hartu zuen parte, gauetz laugarren izateko eta egunetz bosgarren, podiumaren ateetan geratzeko. Mayok, bestalde, Dexter txakurarekin hirugarren egin zuen zapatuan eta bosgarren domekan, azken sailkapenean 4. izateko, podiumetik 16 segundora.



*Sonia Dominguez*

## Kolpe gogorra Somos Eibarrentzat Urdulizen

**Bigarreña jarraian hartu du gure herriko esku-baloi talde nagusienak:** Ipuruan Tolosarekin gol bakkarrarengatik galdu eta gero, oraingoan Urdulizen eman zuen amore Fernando Fernandezek zuzentzen duen taldeak. Euren ligako taldeekin izandako porrot horiek arriskutsuak dira, beheko partea inoiz baino estuago dagoelako Erromok eta Egiak lortutako garaipenen ondoren. Bederatzigarren sailkatutik azken aurrenera lau puntuko alde besterik ez dago unen honetan. Bihar Uharteko bigarren sailkatua izango dute aurrez-aurre Ipuruan, aurkari zaila benetan.

### Mikel Zabala operatuta

Bidasoan jokatzen duen eibartarra ezker oineko Akiles tendoitik operatu dute eta, seguruenik, ezin izango du jokatu denboraldia amaitu baino lehen.

Miren Baranguan eta Arrate Gisasola eibartarrek gidatuko dituzte Euskararen Transmisioa mintegiaren baitan egingo diren solasaldietako bi. Arrate Gisasola Ebete-ko kideak "EUSKALDUN BERRIAK, NOIZ ARTE BERRI?" mahai-ingurua dinamizatuko du, eta Miren Baranguan (testuinguru kulturantz eta eleanitzen berrikuntza eta esku-hartzean aditua) izando dugu "MIGRAZIOEN AUKERAK" tertulia gidatzen. Mintegia matxoaren 11n izango da Portalean eta izen-ematea zabalik dago etakitto.eus webgunean.



### **Miren Baranguan:**

## **"Askotan haurren jartzen dugu fokoa, baina zer gertatzen da etorkin helduekin?"**

**- Aurtengoa 10. edizioa izango da. Nola ikusten duzu egitaraua?**

Landuko diren gaiak gaurkotasan handikoak dira. Egitarauan biltzen diren solasaldietako izenburuak ikusita, gaur egun dauzkagun erroka desderdinak isladatzen dira. Aurten inoiz baino espektatiba handiagoarekin noa.

**- "Migrazioaren aukera" solasaldia dinamizatuko duzu. Nondik nora joango da?**

Migrazioa fenomeno berria dela esaten dugu, baina ez da horrela: bi mende daramatzagu kanpoko migrazioarekin. Elkarrekin bizitzeko proiektu pila bat ezagutzen ditugu, eta ikerketa asko egin dira. Horiek guztiak ikusiko ditugu. Sarritan aurreiritzi eta estereotipoz jantzita gaudenez, migrazioak ematen dizkigun au-

kerak ikusiko ditugu. Aldi berean, guk geuk ditugun aukerak ikusiko ditugu: askotan fokoa etorri direnengan jartzen dugu, baina zertarako gaude prest gu?

**- Zuk dinamizatuko duzun solasaldian Gorka Moreno Ikuspegi-Immigrazioaren Euskal Behatokiko zuzendaria eta Petra Elser etorkin helduekin lan egiten duen Banaiz Bagara elkartearen sortzailea izango dira.**

Egin diren ikerketetatik abiatuta, Gorka Morenok ikuspegi soziologikoa eman go digu. Petra Elserrek, berriz, hizkuntza eta esperientzia batzen dituen proiektuetan oinarrituta jardungo du.

**- "Etorkinek asko eman ahal diote euskerari" esan zuen Gorka Morenok iaz, eta hizkuntza politika berriak ezinbestekoak direla azpimarratu zuen.**

Erakundeetatik baliabideak jarri behar dira eta prestatu egin behar gara. Esperientzia ezberdinak ezagutzen ditugu (...eta kitto! Euskara Elkartearen badago, esate baterako, "Ongietorri" egitasmoa). Esperientzia ezberdinak partekatuz, elkar ezagutzen, ikusten dugu aukera horietarako tokia badagoela.

**- Petra Elserrek dio fokoa etorkin helduegan jarri behar dugula.**

Askotan haurren jartzen dugu fokoa eta oso ondo dago, baina helduekin zer? Eta guraso ez diren helduekin zer? Lkasle etorkinak eskolan daude eta bere gurasoak eskolara hurbilduko dira, baina zer gertatzen da aukera hori ez daukatenekin? Zer eskaintzen diegu horiei? Eta, bestalde, gu zertarako gaude prest elkarbizitzako alorrean?



### **Arrate Gisasola:**

## **"Euskaldun berriek gure tribuko parte izan behar dute"**

**- 10 urteko ibilbidea egin du mintegiak. Zer iruditzen zaizu?**

Poza ematen du ...eta kitto! bezalako elkarte batek, urtez urte, mintegiaren inguruan jende mordoa elkartzen duela ikusteak. Ilusio handiarekin joango naiz.

**- Zuk gidatuko duzun solasaldiaren izenburua "Euskaldun berriak: noiz arte berri?" izango da. Zein da asmoa?**

Esti Amorrortu filologoa eta linguistak gai horren inguruan lanketa handia egin du. Edorta Lopez Rey eta Pello Jauregi egunerok ari dira elebidun hartzaileekin ikasketa prozesu horretan burubelarri lanean. Beraz, ikerketatik eta eguneroko jardueratik abiatuta, ondorioak eta aurrera begirako proposamenak aterako ditugu.

**- Zeintzuk dira euskaldun berriak?**

"Euskaldun berri" terminologian argitu eta adostu beharreko gauza asko da-

go. Berez, definizioaren arabera, euskera familiatik kanpo jaso duena da euskaldun berria, baina gure buruan euskara ikasten ari diren horiek daude, hau da, elebidun hartzaileak.

**- Nolako gaiak jorratuko dituzue?**

"Euskaldun berri" izenburupean etiketaje bat sortzen dugu, ikaste prozesu horretan dagoen jendea sartzen dugu guzti horretan, eta batez ere jende horrek erabilera begira eduki ahal duen potentziala nola mugatzen dugun ikusiko dugu. Parean dagoenari "ez daki asko" etiketa jartzen diogu eta hori apurtzeko beharra aztertuko dugu. "Euskaldun ez oso" moduan irudikatzen ditugu eta horrek mugatu ahal du bai bere intenzionalitatea eta bai guk komunikaziorako eskaini ditzakegun bideak.

**- Adituek diotenez, hemendik aurrera euskaldun berriak izango dira euskal hiztun gehienak. Egoera berri baten aurrean gaude, beraz?**

Gaur egungo egoera asko aldatu da, eta gure klitxe horiek zeharo apurto behar ditugu. Bakoitzaren aldetik, beraz, badago hor ariketatxo bat egin beharra. Ulertu behar dugu egoera guztiz aldatu dela eta horrek etiketaje horiek apurtzeko bide bat ematen digula.

**- Behar adina etekin ateratzen diegu euskaldun berriei euskeraren normalizazioaz hitz egiten dugunean?**

Euskaldun berri asko daude eta horrek paradigma berri batera garamatza. "Etekin" gehiago atera ahal da, potentziala hor dagoelako, egoera aldatu egin delako eta euskeraz bizitzeko lehen baino aukera gehiago daudelako. Askotan ematen du etiketaje horregatik euren burua justifikatu beharra daukatela. Guk, "euskaldun zaharrok", balioan jarri behar ditugu norbanako moduko elkarrizketetan, eta, normalizazio prozesu guzti horretan, egoera berri hau agertarazi behar dugu. Gure tribukoak dira eta gure tribuko parte izan behar dute.





**BAKARNE ELEJALDE:** "Kale artekitektura".



## Haurrentzako Postal Irakurketak lehiaketa antolatu du liburutegiak

Juan San Martin Liburutegiak, Haur Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira, antolatu du lehiaketa hori. Horrela, Haur eta Gazte Libururako Espainako Erakundeak (OEPLI), Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioraren babesarekin antolatutako jarduerarekin batera eginez. Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan edo Bigarren Hezkuntzako lehen zikloan dauden irakurle guztiak har dezakete parte martxoaren 2tik 15era bitartean egingo den lehiaketan, postal bat oso-osorik (iru-

dia eta testua) sortuta. Azaldu dutenez, "testuan hurrek beraien burua aurkeztu beharko dute, labur, eta horrekin batera, postalaren irakurleari liburu bat gomendatu behar diote edo, bestela, irakurtzeak berretzat zer esan nahi duen partekatu".

Postala egiteko kartulina eta egilearen identifikaziorako orria umeen liburutegian jaso daitezke eta kategoria bakoitzeko sari bat emango dute. Haur bakoitzak nahi duen hizkuntzan idatzi ahal izango du postala (0-6 urte bitarteko ka-



tegorian bakarrik marrazkia duten postalak onartuko dituzte). Herri mailako lau irabazleen postalak ekimenean parte hartu duen Espainiako beste liburutegiren bateko lanekin tr-

katuko dira eta, beraz, irabazleek postal bana jasoko dute eta, gainera, estatu mailan egingo den lehiaketan parte hartu eta sari gehiago irabazteko aukera izango dute.

## Bertso eta dantzekin hasiko da Martxoaren 8ko egitaraua

Emakumeen eskubideen aldeko borroka ezberdinak gogoratzeko zein eskubide horiek betetzea eskatzeko eguna izaten da Martxoaren 8a eta Eibarren ere egitarau berezia prestatu dute horren harira Berdintasun Zerbitzua-Andretxeak, ...eta kitto! Euskara Elkarteak, Arrate Kultur Elkarteak, Hitez-ek, emakume independenteek eta Eibarko Gurutze Gorriko Errefuxiatuen programakoek. Datorren barixakuan, martxoaren 6an hasiko dira jarduerak: 16:00etan Andretxean Bildutako Feminismoak partida egingo da. Ondoren, 18:00etan Nerea Lodosa Dantza Garaikidearen eskutik, "Feminismoa gorpuztu" dantza eta flashmob-ak egingo dira Untzagan. Ekitaldian "Ni una más, ni una menos" eta "Respect me" flashmobak elkarrekin dantzatzeko dira eta, koreografiak ikasi nahi

**HILEKOA(K)**  
bertso afaria

Martxoak 6 ostirala  
21:00 Kultur

Nerea Ibarzabal Sakelgi

Beñat Gaztelumendi Arandia

Maitte Berriozabal Garmendia

Maidar Arregi Markuletza

23 euro / 18 euro (hasteko, ikasle, langabe...)  
Tarteak erosteko: Kultura Taberna

dituztenentzat bideo-tutorialak igo dituzte Youtubera. Iluntzeko 21:00etan, berriz, "Hilekoa(k)" bertso afaria hasiko da Arrate Kultur Elkarteak, Nerea Ibarzabal, Maidar Arregi eta Beñat Gaztelumendi bertsolariekin. Gai jartzailea Maitte Berriozabal izango da eta txartelak Kulturalean eros daitezke, 23/18 eurotan (bazkide, ikasle, langabetu...).

Eta Xaxa mugimendu eta sormen gu-nekoek, Martxoaren 8ko Plataformarekin batera eginez, emakume guztiak animatu nahi dituzte Martxoaren 8an kalera irten eta eurekin batera dantzan egitera. Asmo horrekin, entsegu orokorra antolatu dute gaurko, 19:00etan Xaxa-ren lokalean (Jardiñeta, 3). Emakumeen Egunaren ondoren ere, martxoan zehar beste jarduerak batzuk egongo direla aurreratu dute antolatzaileek.



## Argazki lehiaketako irabazleak

Aratosteetarako antolatu dugun argazki lehiaketako irabazlea irudian ikusten duzuen Guridi tabernako lantaldea izan da, Instagram bitartez gurekin partekatu duen argazkiari esker. Tabernarako landu zuten dekorazioa aprobetxatuta, "El Conquis" saioko pertsonaien azalean sartu eta, argazkian begibistakoa den bezala, kanpamendu "pobreenean" egon arren, Aratosteetan behintzat alaitasuna nagusi izatea lortu zuten. Zorionak!





**NEREA GORRITI**  
(aktorea)

## “Betidanik parte hartu nahi izan dut Antzerki Jardunaldietan”

Nerea Gorriti aktore eibartarra Coliseo antzokian izango dugu martxoaren 4an eta 5ean, Vaiven Producciones taldeak Antzerki Jardunaldien barruan taularatuko duen “Ni, munduko txarrena / Yo, la peor del mundo” antzezlano kide bezala. Ez da Coliseo antzokian egongo den lehen aldia (Go!azen-ekin ikusteko aukera izen genuen), baina ilusio handiz eta erronka moduan hartzen du Antzerki Jardunaldien egitarauaren barruan bere herriko antzokian jarduteak. Aktore lanetan ez ezik abesten eta dantzan ere ikusiko dugu. Labetik irten berria den lan honetan musika, umorea, medodrama, erromantizismoa, tragedia... denetik apurtxo bat batzen da, eta ikusleak oso ondo pasatuko duela dio Nereak.

- “Ni, munduko txarrena / Yo, la peor del mundo” Vaiven-en lan berriarekin etorriko zara datorren astean Eibarre-ra. Nola doaz gauzak?

Hiru hilabete daramatzagu entsaioetan eta oso prozesu polita izan da. Aurrestreinaldi bat egin genuen joan den domekan Urnietan, eta estreinaldi ofiziala gaur eta bihar egingo dugu Donostiako Antzoki Zaharrean. Vaivenekin egiten dudan lehen lana da eta oso gustora nago. Oso lan polita da, gaurkotasan handikoa. Danetik dauka, eta hori da emanaldiak daukan gauzarik onena. Denok dantzatu eta abesten dugu. Umorea dago, oso bitalista da, emozioa, maitasuna... Merezi du ikustea. Gainera oso euskara polita eta aberatsa dauka. Ahalik eta jende gehien etortzea espero dut.

- Klasiko batetan oinarrituta, gaurkotasan handia duen lana da. Nor izan zen Sor Juana de la Cruz eta zer kontatzen da?

Sor Juana de la Cruzen bizitzatik abiatuta, gaurko ikuspuntua ematen zaio. Gauza eta pertsona guztiei aurre egin zien emakume baten bizitza kontatzen da. Sor Juana de la Cruz euskal-mexikar poeta eta prosista izan zen, eta bere olerkietan bere garaietara (XVII. mendea) –eta geure garaietara– aurreratuta zegoen emakumea izan zela ikusten da. Musikak pisu handia du –Iñaki Salvadoren bederatzi abesti daude–, testua Antonio Muñoz de Mesarena da, koreografia Maitane Zalduegirena... kalitate handiko lana da. Eta bi bertsiorekin egingo ditugu, euskerazkoa martxoaren 4an, eta gaztelarazkoa hurrengo egunean.

- Jardunaldietan lehen aldiz jardungo duzu. Zeure ametsa bete dela esan daiteke?

Demaseko ilusioa egiten dit Jardunaldietan parte hartzeak. Beti pentsatu dut: “behin edo behin jardunaldietan egongo naiz...”, eta heldu da eguna. Zortea da horrelako jardunaldiak edukitzea eta hilabete pasatuz Euskal Herritik eta Espainia osotik datozen emanaldiak Eibarren edukitzea.

- Zure papera zein izango den aurreratu dezakezu?

Larregi aurreratu gabe, Sor Juanaren kontzientzia, narratzailea... “Pepito grillo” antzeko bat naiz. Denbora guztian hor egongo den “Inor ez/Nadie” izeneko pertsonaia izango naiz, eta obra pasatu ahala ikusten joango da zein den pertsonaia hori.

## Koko-jantzi lehiaketa eta dantzaldia Untzagako jubilatuen etxean


Aratoste Martitzena ospatzeko, atzo arratsaldean dantzaldia eta koko-jantzi lehiaketa egin zituzten Untzagako jubilatuek. Bi koko-jantzi onenei saria Josefa Llorentek (brasildarra) eta Elena Lopezek (alarguna) eman zituzten. Zorionak!



Bestalde, domekaz geroztik Fausto Morgadoren margolanen erakusketa

ikusiko daiteke Untzagako jubilatuen etxean. Martxoaren 8ra arte joan daiteke bisitan, astegunetan 19:15etik 21:30era eta zapatu eta domeketan, berriz, 12:00etatik 14:00etara. Eta gaur, 19:00etan, Araceli Bonok “Entre mis tacos”, berak idatzitako poesia liburua aurkeztuko du.





## Karmele Jaiok "Aitaren etxea" bere nobelaz jardungo du irakurleekin

Martitzenean, 19:00etan hasiko da Idazlearekin Harixa Emoten euskerazko literatur tertulia Portalean (batzartokian). Otsaileko saiorako Karmele Jaiok (Gasteiz, 1970) gonbidatu dute, "Aitaren etxea" bere liburuari buruz irakurleekin berbetan jarduteko. Lehen lana, "Hamabost zauri" (Elkar) ipuin liburua 2004an eman zuen argitara eta ordutik narrazioa eta eleberria tartekatuta ditu bere ibilbidean. Hala ere, ezagutzera eman zuen lana "Amaren eskuak" (Elkar, 2006) nobela izan zen. Datoren astean komentatuko duen liburua ere eleberri bat da eta, beti bezala, nobelari mamia ateratzeko Antxon Narbaizaren laguntza izango du te solasaldian.



## Jon Maiaren saioak hasiko ditu Ermuko Berbetan jardunaldiak eguaztenean

Euskeraren erabileraren inguruko gogoetak sortzeko asmoz, martxoan Berbetan jardunaldiak egingo dira Ermuan. Aurten 21. edizioa beteko duen ekimena Euskal Birusa euskara elkarte, Eskolabari ikastetxea, Kaltxango AEK euskaltegia, Anaitasuna Ikastola eta Udal euskaltegiaren arteko elkarlanaren emaitza da eta Ermuko Euskara zerbitzuaren babesa du. Lehen hitzaldia eguaztenean (martxoaren 4an) emango du Jon Maiak, 19:00etan Lobianon. Maiak "Berriak jaio ginen", bere liburu berria aurkeztuko du eta horren inguruko solasaldia egingo da jarraian. Eta martxoaren 12an (eguna) "Kontrako eztaurritik" liburuan oinarrituriko bertso-saio literarioa eta tertulia egingo dira, horiek ere 19:00etatik aurrera Lobianon. Uxue Alberdi eta Ane Labaka izango dira bertsoetan eta gai jartzailea Maite Berriozabal izango da. Bi saioak edonorentzat zabalik egongo dira.



## Lur Kortaren ipuin kontakizuna

Bihar arratsaldean, 18:00etan, "Aurorita ipuinez ipuin" antzetzutako ipuin kontakizuna egingo du Lur Kortak umeen liburutegian, Zapatuko Ipuina egitasmoari lotutako saioan. Orain arteko martxan, sarrera doan izango da, baina joan zen astean aurreratu genizuen bezala, sartu ahal izateko derrigorrezkoa izango da aurretik hartutako gonbidapena (liburutegian bertan eska daiteke) aurkeztea.



## Elikadurari buruzko hitzaldiak

Bidezko elikadurari buruzko hitzaldiak antolatu dituzte datorren asterako La Salle ikastetxean (Isasin). Farmacook Nutrizio Eskolako Zalao Otaduyk emango ditu, "Elikadura osasuntsua, bidezko elikadura" izenburuari jarraituta, eguaztenean euskeraz eta eguenean, berriaz, gazteleraz. Egun bietan 18:00etan hasiko da berba egiten, ikastetxeko aretoan eta emango dituen azalpenak guraso direnentzat bereziki interesgarriak izango direla diote antolatzaileek.

## Eguen Zuri argazki lehiaketa

Aurten ere Eguen Zuri argazki lehiaketa antolatu du Arrate Kultur Elkarteak. Egile bakoitzak hiru lan aurkez ditzake gehienez (zuri beltzean zein koloretan), JPG formatuan. Argazkiak bidaltzeko eta izen-ematea egiteko helbidea eguenzuri2020@gmail.com da. Lanak martxoaren 8ra arte onartuko dituzte. Informazio gehiago nahi izanez gero elkartearen bulegoan galdetu, 638284912 zenbakira deitu edo arratekultu@gmail.com helbidera idatzi daiteke.



## 43. Antzerki Jardunaldiak

Otsailak 28, barixakua



### “La fuerza del cariño”

Coliseoan  
20:30ean

**PENTACIÓN ESPECTÁCULOS / Antzezleak:** Lolita Flores, Luis Mottola, Antonio Hortelano, Marta Guerras / **Zuzendaria:** Magüi Mirá / **Iraupena:** 90 minutu

Konpainiak 1983ko “La fuerza del cariño” filmaren egokitzapena dakar. Komediaren eta dramaren aurpegi bikoitza erakutsiz, barrea eta negarra eskutik helduta doaz eta egoera komikotik tragikora pasatzen da, emozioak eraginez tartean. Magüi Mirá obraren zuzendari eta moldatzailearen esanetan, “*bizitza egunero ospatzen duten lau pertsonaiek argi erakusten dute amodioa, maitasuna eta maitatuak izateko beharra direla bizitzaren benetako motorra*”.

Otsailak 29, zapatua



### “Full House”

Untzagan  
18:00etan

**ELÉCTRICO / Antzezleak:** Alina Stockinger, Sergi Estebanell, Josep Cosials, Jordi Solé / **Zuzendaria:** Ana Redi-Milatovic / **Iraupena:** 50 minutu

Testurik gabe eta antzerki fisikoaren eta musikaren bidez, bizilagun oso berezi batzuen elkarbizitzaz goatzera gonbidatzen gaitu Full Housek. Eléctrico 28 austriar eta kataluniar jatorriko artisten kolektiboa da, clown, antzerki fisikoa, hiri-arte eta dantza bezalako bagajeak dituen, aldi berean lengoaia, dramaturgia, ezusteko eta irudi ezberdinak sortuz. Denok giza-tiarrago sentitzeko moduko antzerkia egiten dute elkarbizitzari buruzko fabula modernoan.

Martxoak 1, domeka



### “Curva España”

Hezkuntza Esparruan  
20:30ean

**CHÉVERE / Antzezleak:** Patricia de Lorenzo, Miguel de Lira, Lucía Estevez, Leticia T. Blanco / **Zuzendaria:** Kron / **Iraupena:** 80 minutu

Orain aurkezten digun lanean, Chéverek ia polizia genero dokumental baten bidez, itxura baten argitu gabe dagoen krimena erakusten digu, eta haren gainean nazio-estatu espainolaren eraikuntzaren alegoria josi da Galiziara inoiz iritsi ez zen tren baten promesa balitz bezala, estatuaren heriotzaren mitoa bihurtzeko bidean. Galiziako proiektu eszeniko sendoenetakoa bihurtu da Chévere, gure bizitzak kolpatzen dituzten gaiekin umoreari tartea eginez.

Martxoak 4, eguaztena



### “Ni, munduko txarrena”

Coliseoan  
20:30ean

**VAIVÉN PRODUCCIONES / Antzezleak:** Itxaso Quintana, Ugaitz Alegria, Nerea Gorriti, Ainara Ortega, Dorleta Urretabizkaia / **Zuzendaria:** Olga Margallo / **Iraupena:** 105 minutu

Sor Juana Ines de la Cruz euskal-mexikar poeta eta prosistari buruzko musika ikuskizuna da oraingo hau; bertan XVII. mendeko Sor Juanak bere azken momentuetako mamuei aurre egin behar die XXI. mendetik eta horrela galdetzen du: merezi al du libre izatea beste guztia kentzen badizute? Musika (Iñaki Salvadorren esku), umorea, melodrama erromantikoa, tragedia... guzti hori eta, gainera, amaierari ikus-entzuleak aurkitu beharko dion erantzuna.

Martxoak 5, eguena



### “Yo, la peor del mundo”

Coliseoan  
20:30ean

**VAIVÉN PRODUCCIONES / Antzezleak:** Itxaso Quintana, Ugaitz Alegria, Nerea Gorriti, Ainara Ortega, Ana Pimenta / **Zuzendaria:** Olga Margallo / **Iraupena:** 105 minutu

Vaiven konpainiak ospe handiko egileen testu garaikide argitaragabeak edo klasikoek berretsiak eszenaratu ditu bere sorreratik. Beti ere ikusleari gure garaiko gizarteak kezkatzen duten gatazketatik at ez dagoen kalitatezko antzerkia eskaintzeko asmoarekin. Aurreko edizioetan hainbat muntaiatan parte hartu dute, hala nola, *Lotsagabeak*, *Murphy gainetik kendu ezinda*, *Antigona*, *Nasdrovia Chejov*, *Happy End*, *New Orleansko Cyrano*...



### La bien querida-ren kontzertua ERMUAN

Ana Fernandez Villaverde 'La bien querida'-k kontzertua eskainiko du gaur, 22:15ean, Ermua Antzokian. Bere diskoek publikoaren harrera bikaina lortu dute. Runbarekin, arabiar eraginarekin eta musika elektronikoarekin (guztiak dosi txikietan nahastuta), Anaren diskurtso musikalak indar handia hartu du, letra ederrez eta melodia zuzenez lagunduta. 'La bien querida' hedabide kultural garrantzitsuenen azalean agertu da, jaialdi handietan hartu du parte eta lehen postuan jarri da urteko musikari onenen zerrenda askotan.



### GABIRIA-LEGAZPI 22. Rallya domekan

61 parte-hartzaile izango ditu domeka arratsaldean jokatuko den Legazpiko proba entzutetsuak. Autozaleentzat urtero egun berezia izaten den rallysprintak ibilbide ikusgarria izango du, sei kilometro eta erdiko luzerarekin. Lehen mailako auto eta pilotoak izango dira etzi goizetik Legazpiko erdialdea autoaren munduko jaia bihurtuko duten gunean. Proba arratsaldeko 14:30ean hasiko da, erlojuz kontrolatuko duten tramoaren lehen pasadarekin. Jarraian beste bi itzuli egin beharko dituzte gidariek.

## eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

## hildakoak

- Juan Antonio Hernandez Manzano. 85 urte. 2020-II-20.
- Javier Hajar Garate. 86 urte. 2020-II-20.
- Raquel Perez Camba. 85 urte. 2020-II-21.
- Mercedes Galvan Aranbarri. 83 urte. 2020-II-21.
- M<sup>a</sup> Nieves Gonzalez Gonzalez. 74 urte. 2020-II-22.
- Nieves Elkoro Larreategi. 99 urte. 2020-II-22.
- Juan Egaña Lizundia. 91 urte. 2020-II-23.
- Pura Pereira Gavilanes. 89 urte. 2020-II-23.
- Liber Zalabardo Gordo. 87 urte. 2020-II-23.
- Pakita Etxaniz Elorza. 86 urte. 2020-II-25.

## jaiotakoak

- Valeria Sofia Leon Reyes. 2020-I-30.
- Anaya Zaman. 2020-II-6.
- Aratz Markina Sesma. 2020-II-21.
- Markel Markina Sesma. 2020-II-21.
- Aitana Ortega Dominguez. 2020-II-21.
- Adam Moutaouakkel. 2020-II-22.
- Iñaki Agirrezabal Agirregomezkorta. 2020-II-23.
- Elene Rodriguez Dominguez. 2020-II-24.
- Mara Oteo Sorriketa. 2020-II-24.

## farmaziak

- Barixakua 28  
 EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Zapatua 29  
 EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Domeka 1  
 EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Astelehena 2  
 EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Martitzena 3  
 EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
- Eguaztena 4  
 EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
- Eguena 5  
 EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Barixakua 6  
 EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI - 2020AN-  
 Barandela (Z. Agirre, 4)

## telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....900 17 11 71
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Eibar Ospitalea.....943 03 29 00
- Mendaro ospitala.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....944 33 33 33
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Andretxea.....943 70 08 28
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63
- Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak) ...699 37 75 20

## SUDOKUA

### AURREKOAREN EMAITZA

8	6	1	3	7	4	5	9	2
9	7	2	6	8	5	3	1	4
4	3	5	2	9	1	8	6	7
5	1	6	4	3	9	7	2	8
2	9	4	8	1	7	6	5	3
3	8	7	5	6	2	1	4	9
7	2	3	9	5	6	4	8	1
1	5	9	7	4	8	2	3	6
6	4	8	1	2	3	9	7	5

	5		9	6				8
7					8	6		
	6		4					
	8			1			3	5
	9						6	
6	1			9			7	
				5		8		
		2	6					7
8				3	2		5	



## Barixakua 28

### BILERA IREKIA

**19:30.** "Badatoz sanjuanak". Txaltxa Zelaian.

### ANTZERKI JARDUNALDIAK

**20:30.** "La fuerza del cariño" (Pentacion Espectaculos). 15 euro (10'5 Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.

## Zapatua 29

### HAUR PARKEA

**11:00/14:00 eta 16:30/20:30.** Astelena Haur Parkea. 3 euro (doan EMGI-aren bonoarekin). Astelena frontoian.

### KIROLA FAMILIAN

**17:30.** Jolasteko gune irekia, HHko ume (2-5 urte) eta gurasoentzat. Ipurua kiroldegian.

### ANTZERKI JARDUNALDIAK

**18:00.** "Full House" familientzat ikuskizuna (Electrico 28. Bartzelona / Austria). Doan. Untzagan.

### ZAPATUKO IPUINA

**18:00.** "Aurorita ipuinez ipuin", haurrentzat, Lur Kortaren eskutik. Sarrera doan (aurretik gonbidapena hartuta). Liburutegian.

### UMEENDAKO ZINEA

**18:00.** "Abominable". Doan. El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

## Domeka 1

### ZUHAITZ EGUNA

**09:30.** Zuhaitz Eguna. Izen-ematea ikastetxeetan. Abiapuntua: Klub Deportiboa.

### KIROLA FAMILIAN

**17:30.** Jolasteko gune irekia, HHko ume (2-5 urte) eta gurasoentzat. Ipurua kiroldegian.

### PATINAK IPURUAN

**17:45.** Ipurua kiroldegian.

### ANTZERKI JARDUNALDIAK

**20:30.** "Curva España. La curva en la que se mató España" (Chevere, A Coruña). 12 euro (8,5 Coliseoaren Laguna). Hezkuntza Esparruan.

## Astelehena 2

### ELKARRETARATZEA

**12:00.** Jubilatuta eta Pentsiodunena, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan.

## Martitzena 3

### IKASTEN

**10:00.** "Emakume konpositoreak" hitzaldia, Marina Lertxundiren eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskolan.

### IKASTEN

**16:00/19:00.** Puntu-tailerra. **17:00/20:00.** Joskintza-tailerra. Portalean.

### ZALDIBAR ARGITU ORAINI

**19:00.** Zaldibar Argitu Orain! herri-plataformaren bilera irekia. Arrate Kultur Elkartearen.

### BISITA GIDATUA

**19:00.** Bisita gidatua Hilekoa(k) erakusketan, Ainhoa Aldazabalen eskutik. Topalekuan.

### HARIXA EMOTEN

**19:00.** Idazlearekin Harixa Emoten literatur tertulia: Karmele Jaioren "Aitaren etxea". Portalean.

### BILERA IREKIA

**18:00.** "Ipuruako merkatu plazaren erabilerak". Ipuruako merkatu plazan.

### MENDI JARDUNALDIAK

**19:00.** "Mendirako elikadura proposamenak makrobiotikatik" tailerra, Aniaiz Ariznabarretaren eskutik. Euskeraz. Klub Deportiboa.

### EIBARKO KANTUZALEAK

**19:00.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

### ANTZERKI JARDUNALDIAK

**20:30.** "Ni, munduko txarrena" (Vaiven Producciones). 12 euro (8,5 Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseoan.

## Eguena 5

### IKASTEN

**10:00.** "Emakume musulmanen ikus(ezintasuna/garritasuna) zinean" hitzaldia, Igor Barrenetxearen eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskolan.

### KALEETAN KANTUZ

**18:00.** Dantza taldearen entsegua. Untzagako jubilatuta etxean. **19:30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

## zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

**29an: 19:45, 22:30**

**1ean: 20:00**

**2an: 20:30**

**"Hasta que la boda nos separe"**

Zuzendaria: Daniel de la Orden



(2 ARETOAN)

**29an: 17:00, 19:45, 22:30**

**1ean: 17:00, 20:00**

**2an: 20:30**

**"El plan"**

Zuzendaria: Polo Menarguez



(ANTZOKIAN)

**29an: 17:00<sup>(1)</sup>, 19:45, 22:30**

**1ean: 17:00<sup>(1 Aretoa)</sup>, 20:00**

**2an: 20:30**

**"La llamada de lo salvaje"**

Zuzendaria: Chris Sanders



(ANTZOKIAN)

**29an: 17:00**


**1ean: 17:00**

**"Sonic. La película"**

Zuzendaria: Jeff Fowler




**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.**



Zorionak, MAIALEN, atzo 15 urte bete zenduaz-en-eta. Segi hain jator eta alai. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, EUKEN!!!, eguaztenian 7 urte egin zenduaz-en-eta. Musua etxekuen eta, batez be, Paule, Xuhar eta Juleneren partez.



Zorionak, LAIA, hillaren 25ian urtetxua egin zenduan- eta. Musu haundi bat etxekoan partez.



Zorionak, AITOR, atzo 6 urte bete zenduaz-en-eta!! Ertain bihurtu jaku- eta etxeko txikixa. Musutxo pilla bat!



Zorionak, ALBA Cid, bixar 4 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, MARTIN, zure 5. urtebetetzian! Ez galdu iñoiz bizitzeko poztasun hori!




Zorionak, JON, datorren eguaztenian 4 urte egingo dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, JON, gure bisiesto! Bixar 4 urte. Aurten zure egunian ospatuko dogu, txapeldun! Patxo bat famelixaren partez.



Zorionak, ALAIN, astelehenian 10 urte egingo dozuz-eta. Ondo pasau eta musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MARTIN!!! Atzo 4 urte bete zenduaz-en-eta, mutil haundi. Askoi maite zaittugu. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ASIER! 5 urte bete dozuz-eta. Musu asko famelixaren eta, batez be, Edurneren partez.



Zorionak, ANE (6 urte) eta PABLO (11 urte). Musu haundi bana etxeko guztien partetik.



Zorionak, JON!!! Atzo 5 urte bete zenduaz-en-eta. Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, MAIALENeN partez.



Zorionak, GARI eta AITOR. Eta besarkada haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, XABAT (25ian urtiak egin dozuz) eta ALICIA (29xan). Musu haundi bana famelixako guztien partez.

## Erakusketak

### Otsailaren 29ra arte:

- JAUME MILLANen argazkiak (I) (*El Ambigu taberna*)
- JAUME MILLANen argazkiak (II) (*Portalea taberna*)
- UZTARGI KLIK-en argazkiak (*Depor taberna*)

### Martxoaren 8ra arte:

- “JABIER VILLARREALI OMENALDIA” kolektiboa (*Portalea*)
- FAUSTO MORGADoren margolanak (*Untzagako jubilatutxetxea*)



**i** Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK**, beti ere **4 ASTERAKO**, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

- Etxea salgai Polonia Etxeberria kalean. 2 logela, egongela, sukalde, komuna eta ganbara. Berritua eta sartzeko moduan. Iggogailu jarri berria. Eguzkitsua eta kalefakzioarekin. Garajea aukeran. Tel. 610-835256.

### 1.2. Errentan

- Etxea hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruan. Tel. 632-337083.  
- Pisua alokatzen da Kantabrian Aste Santuan. 2 logela, egongela, sukalde eta 2 bainu. 2 garaje plaza: bat kanpoan eta bestea barnean. Urbanizazioak igerilekua eta paddle pista ditu. Hainbat hondartza 20 minutura autoz. Santander ordu erdira. Inguru lasaia. Zenbait hondartzetatik gertu. 75 euro eguneko. Tel. 617-272634.  
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 631-907807.  
- Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 652-032117.  
- Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 631-881161.  
- Emakume batek pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 667-060292.

## 3. Lokalak

### 3.2. Errentan

- Garajea hartuko nuke alokairuan Urki, Txaltxa Zelai edo P. Etxebarria inguruan. Tel. 645-007388. Jasone.  
- Lokal argitsua alogagai Jardinieta kalean. Gazteentzat edo musika-taldeentzat aproposa. 140 m<sup>2</sup>. Etxebizitzik ez erakinean. Tel. 656-756485.  
- Lokal komertziala alokatzen da Birjinape 1-ean. 33 m<sup>2</sup>. 250 euro hilean. Tel. 688-678934.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 3 urteko esperientzia eta erreferentziak. Tel. 688-712075.  
- Neska eskaintzen da etxeko lanak edo garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 640-895039.  
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 696-802587.  
- Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Ziurtagiriak eguneratuta eta erreferentziak. Tel. 699-587132.  
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-842219.  
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (07:00etatik 08:30era eta 18:30etik 22:30era). Baita asteburuetan ere. Tel. 660-542155.  
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko (baita gauz ere) eta etxeko lanak egiteko. Tel. 641-840425.

- Gizona eskaintzen da sukalde-laguntzaile jarduteko, saltzaile moduan eta nagusiak zaintzeko. Tel. 625-997599.  
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ziurtagiriarekin. Tel. 632-337083.  
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 612-296098.  
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Asteburuetan barne. Orduka. Erreferentziak. Tel. 632-098381.  
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 641-840396.  
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 5 urteko esperientzia. Tel. 642-550705.  
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauz ere. Orduka. Tel. 631-907807.  
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 688-734873.  
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan eta gauz ere. Esperientzia. Tel. 602-888008.  
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Arratsalde eta asteburuetan. Tel. 612-223075.  
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 666-197831.  
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 10 urteko esperientzia. Tel. 689-798284.  
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Titulazioarekin. Tel. 602-884309.  
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduka. Tel. 612-201719.  
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Orduzko malgua. Tel. 657-209119.  
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-611201.  
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Tel. 643-398596.  
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukalde-laguntzaile moduan. Tel. 632-237151.  
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta igeltsero jarduteko. Tel. 631-868165.  
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukalde-laguntzaile jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 652-032117.  
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukalde-laguntzaile jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-881161.  
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko (10 urteko esperientzia eta titulua) eta garbiketarako egiteko. Orduzko malgua. Tel. 679-912841.  
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 688-761191.  
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-644860.  
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 603-338209.  
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-247899.  
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 603-262842.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 641-821288.  
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 655-094780.  
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-049781.  
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 632-415374.  
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 611-198906.  
- Emakumea eskaintzen da arratsaldeko nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Derrigorrezko Formakuntza eta esperientzia. Tel. 626-197217.  
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Egunez. Tel. 643-278344.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

- Euskarazko klaseak ematen dira. Perfilatutako prestakuntza: IVAP, HABE... Umeentzako eskolako erreferentzia. Tel. 620-608065.  
- DBH, Batxilergo, Matematikak, Fisika, Kimika, Ekonomia eta Lengoaia klase partikularak ematen dira. 2-3 laguneko taldeak. Tel. 678-937827.  
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Berbalagun talde bat osatu nahi dugu ingelesez berba egiteko. Horretarako, amahizkuntza ingelesa duen norbait behar dugu; trukean euskeraz beharko balu, gu prest laguntzeko. Tel. 628-780910.  
- Auto ganean jartzeko kutxa salgai. Evospace 400s etxekoa. Tel. 678-075299.  
- 90eko ohe artikulatua salgai. Koltxoia barne. Oso egoera onean. Tel. 680-803251.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila


## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18  
publizitatea@etakitto.eus



# Cambridge Assessment English

Authorised Exam Centre

AUTHORISED CENTRE ES 438

## MAIATZA-EKAINEKO DEIALDIA AZTERKETAK Eibar, Durango eta Arrasaten

## MATRIKULAK Martxoaren 2tik 20ra

	AZTERKETA DATAK	
<b>STARTERS</b> .....	Ekainaren 6an (larunbata) AZTERKETA OSOA	
<b>MOVERS</b> .....	Ekainaren 6an (larunbata) AZTERKETA OSOA	
<b>FLYERS</b> .....	Ekainaren 6an (larunbata) AZTERKETA OSOA	
<b>KET (FOR SCHOOLS)</b> .....	(PAPERS 1,2) Ekainak 6 (larunbata) .....	(SPEAKING) Maiatzak 29 - Ekainak 7
<b>PET (FOR SCHOOLS)</b> .....	(PAPERS 1,2) Ekainak 6 (larunbata) .....	(SPEAKING) Maiatzak 29 - Ekainak 7
<b>FCE</b> .....	(PAPERS 1,2,3) Ekainak 6 (larunbata) .....	(SPEAKING) Maiatzak 29 - Ekainak 7
<b>FCE</b> .....	(PAPERS 1,2,3) Ekainak 20 (larunbata) .....	(SPEAKING) Ekainak 12 - Ekainak 21
<b>CAE</b> .....	(PAPERS 1,2,3) Maiatzak 30 (larunbata) .....	(SPEAKING) Maiatzak 22 - Maiatzak 31
<b>CAE</b> .....	(PAPERS 1,2,3) Ekainak 20 (larunbata) .....	(SPEAKING) Ekainak 12 - Ekainak 21
<b>CPE</b> .....	(PAPERS 1,2,3) Ekainak 12 (ostirala) .....	(SPEAKING) Ekainak 5 - Ekainak 14
<b>PET</b> .....	(PAPERS 1,2,3) Maiatzak 22 (ostirala) .....	(SPEAKING) Maiatzak 15 - Maiatzak 24
<b>FCE FS</b> .....	(PAPERS 1,2,3) Ekainak 13 (larunbata) .....	(SPEAKING) Ekainak 5 - Ekainak 14

### INFORMAZIOA ETA MATRIKULAK

<b>ARRASATE:</b>	Parlance .....943 77 06 83
	Idiomaster .....943 79 07 84
<b>BERGARA:</b>	Espolon School of English .....943 76 03 53
<b>EIBAR:</b>	Link Idiomas .....943 20 39 59
	Target School of English .....607 83 36 13
<b>ERMUA:</b>	Akerlei .....943 17 66 32
<b>ELGOIBAR:</b>	Key Academia de Inglés .....943 74 30 44
	ILS .....943 74 40 40
<b>OÑATI:</b>	Sounds Great .....943 78 20 91

<b>DEBA:</b>	Akabi .....943 19 16 79
	North Street English .....652 44 86 46
<b>DURANGO:</b>	San Jose Maristak .....94 681 00 58
<b>MARKINA:</b>	Lea Artibai Ikastetxea .....94 616 90 02
<b>ELORRIO:</b>	Ontrack Hizkuntza .....94 658 46 73
<b>BERRIZ:</b>	Speak up .....94 622 52 94
<b>ZUMAIA:</b>	Golden Gate .....943 86 50 20
<b>MUTRIKU:</b>	Gogoz .....943 60 43 58



ARRATE HOMES • EIBAR


## Eibarko erdigune berria

- Atikoak terrazekin
- Gimnasioa
- Balio anitzeko gela sukaldearekin
- Sukalde hornituak

ERREBAL PROIEKTUAREN ONDOAN

Neinor Store: Bidebarrieta, 6 - Eibar

900 11 00 22 • [neinorhomes.com](http://neinorhomes.com)






# PROBATZERA ETOR ZAITEZ ALDI EIBAR BERRIA

**MARTXOAK 4**

📍 **OTAOLA KALEA, 2.**

EZ EZAZU  
HUTS EGIN  
**ZUZENEKO  
SUKALDARITZA**

**PRODUKTUAK  
OPARI\***



Erosketa osoak egin  
itzazu astelehenetik  
**larunbatera 9:30etatik  
21:30etara.**

**ALDI**

ASKO BALIO DUENAK  
OSO GUTXI KOSTATZEN DU

aldi.es

\*Sustapena 25°C edo gehiagoko erosketarako balagarria izango da, txartel berean eta zentroa irekitzen den egunean.  
Sari bat pertsonako eta txarteleko. Informazio gehiago eta notario-oinarririk hemen: [www.aldi.es/regalo-de-bienvenida](http://www.aldi.es/regalo-de-bienvenida)